



ARGIA

Segregazioari nola egin aurre?

JUDIMENDI ESKOLAREN

ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUA

24-29. orrialdeak



**"Damutzen naiz
pertonalki,
baina ez artistikoki"**

14 | JULEN GOLDARAZENA,
FLAKO FONKI




**Euskarazko
komunikazioan
nabarmenduak**

30 | ARGIA SARIAK 2025



**Nola eraikitzen da
kriminal bat literaturan
eta hedabideetan?**

48 | (H)ILBELTZA



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | MIKEL BASABE
- 21 | UXUE APAOLAZA
- 22 | IÑAKI MURUA

Finkoak

- 23 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA**

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


40 | ZERGATIK UTZI DITU ARGIAK TWITTER ETA FACEBOOK?

Axier Lopezek azaldu ditu sare sozial bakoitzaren argiak eta ilunak eta ARGIAk horietako bakoitzarekin nola jokatzera erabaki duen. Zu nondik iristen zara ARGIAko edukietara? Hemen duzu ARGIAko sarbideen berri.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Mayotteko papergabeak: Chido zikloiaren biktima ikusezinak

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | JULEN GOLDARAZENA

“Ez dakit euskara hobetu dudan edo lotsa galdu, baina horrek oso pozik jartzen nau”

Amets Aranguren

24 | HEZKUNTZA | GASTEIZKO JUDIMENDI

A eredu ikastetxe estigmatizatua D eredu auzo-eskola bilakatzen

Mikel Garcia

30 | KOMUNIKAZIOA | ARGIA SARIAK 2025

Alternatibei zirrikitua irekitzeagatik

Itsaso Zubiria

48 | KULTURA | (H)ILBELTZA

Nola sortu kriminal bat (eta zergatik Aroztegiko auzipetuak ez diren kriminalak)

Gorka Peñagarikano


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako
Gobernua**
Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:





Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



LURRAREN DEFENTSAN
KRIMINALIZAZIORIK EZ

Aroztegia



Esker mila

Palacio de Arozteguia promotorearen enkarguz, legez kanpo ekin zioten 2021ean Lekarozko lurretan ehunka haritz ebakitzeari. Herritarrek gelditzea lortu zuten, gorputza makinan aurrean jarrita eta lur horietan egunak eta gauak emanda. Ilegalki jardun zuen enpresak ez du zigorrik jaso, aldiz, hasieran epaitegiek arrazoi eman zieten herritarrei orain garesti ordainarazi nahi diete, denontzako eskarmentu gisa: 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euro zazpi lagunentzat. Burua eta bihotza dituen oro Aroztegiko proiektu klasista eta suntsitzailerean aurka zegoen. Jauntxoak salbuetsi eta herritarrak zigortzeko azken astakeria honi "esker" atzera bueltarik ez duen kontraktotasuna zabaldu dute jende gehiagorengana. Eskerrik anitz.

📍 Manifestazio jendetsua Iruñean, otsailaren 1ean. **AITOR KARASATORRE / FOKU**

🔴 **AXIER LOPEZ**

2.000 herritar Laudion, Guardianeko langileei babesu emateko

 URKO APAOLAZA AVILA

Egun gogorra bizi behar izan dute Laudioeko Guardian Glass enpresako langileek urtarrilaren 29an. Goizean goizetik sumatu dituzte "kanpoko" pertsonen sartu irtenak lantegian, zuzendaritzak labea itzaltzeko asmoa erakutsi baitu. ELAk eskatu du labearen itzalketa "kautelaz" geldiaraztea, baina EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ez du eskaria onartu. LABek, bere aldetik, Lan Ikuskaritzaren eta Lan Deigaritzaren aurrean salatu du labea itzaltzeko erabakia. Bi sindikatuen ordezkariak daude enpresa batzordean.

SUSMORIK OKERRENAK BETETA

Goizeko 5:00ak dira. Dozenaka lagun elkarrekin daude lantegiaren aurrean, *Guardian ez itxi!* dioen pankarta handi bat zabaldua atearen luze osoan. Bertako langileak dira, baina baita inguruko enpresetako beharginak ere –Laudioko alkate Ainize Gastaka ere bertan izan da–, elkartasuna adierazteko. Inguruan Ertzaintzaren hainbat furgoneta ikusten dira sareetan zabaldutako irudietan.

Hasiera batean Osalaneko eta Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko teknikaririk gabe eman du enpresa estatubatuarrek labea itzaltzeko agindua, baina langileek hori egiteari uko eginik, prozesua eten dute une batez. Hala ere, azkenerako,

Guardian lantegia giza-katean inguratu eta Laudioeko plazara iritsi dira ondoren. Eskualdean hamarkadetan ikusitako manifestazio jendetsuena izan da

teknikarien beraien bermearekin labea hozteari ekin diote. Langileen susmorik okerrenak bete dira, beraz.

LANGILEAK "ABANDONATURIK"

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburu Mikel Jauregik bezperan egindako adierazpenek haserrea sortu dute Guardianeko 171 beharginen artean: "Langileei eskatzen diegu labea itzaltzeko prozesuan lagundu dezatela", esan du sailburuak. Izan ere, Jaurlaritzak ziurtatu zuen prozesuan "labearen osotasuna eta segurtasuna" bermatuko duela, inbertitzaile eta proiektu berriak hartu ahal izateko.

Baina langileek diote labea bizkorrengi eta beira barruan dagoela itzali dela eta,

horren ondorioz, hemendik aurrera ez dela erabilgarri egongo. Hala, gogor kritikatu dute Eusko Jaurlaritzaren jarrera: "Langileak abandonaturik geratu dira berriro, etorri behar zuenak laguntzera eta langileen ondoan egon behar zuena, ez da egon, lotsagarria da", azaldu dio Aitor Peral Guardianeko langileak Aiaraldea.eus hedabideari. "Hozte prozesu hori abiarazita dago, baina ez da egin modu kontrolatuan, egin duten moduan ez du atzera bueltarik izango. Hainbeste propaganda eta gero, Guardianek hasieratik zuen plana jarri dute martxan", esan du Maddalen Muguruza LABeko kideak.

MULTINAZIONALEN INPUNITATEA

Hurrengo egunean egitekoa zuten greba mugagabea bertan behera uztea erabaki dute enpresa batzordeko kideek, deialdiaren helburua labea piztuta mantentzea baitzen.

Baina mobilizazioekin jarraitzeko intentzio osoa erakutsi dute: "Hemen argi geratu dena da multinazionalak edozein erabaki hartu dezaketela inongo baldintzarik gabe, ez dagoelako organorik benetako baldintzak eta mugak jarriko dizkiena holako erabakiak hartzerakoan –esan du Muguruza–; langileak gaur inolako tresnarik gabe utzi dituzte".

2.000 LAGUN LAUDIOKO MANIFESTAZIOAN

Ostiralean, Guardianeko enpresa batzordeak eta SOS Aiaraldea plataformak deituta 2.000 herritar elkartu dira Laudion, itxiera salatzen. Altxarrateko futbol zelaitik hasita, lantegia inguratu dute eta Laudioeko plazan amaitu dute manifestazioa. Aiaraldea.eus-en arabera eskualdean hamarkadetan ikusitako manifestazio jendetsuena izan da.

"Labea ez dago matxuratuta, hondatu egin dute!", oihukatu dute ozen, eta Jaurlaritzak erabaki horretan izan duen papera behin eta berriz salatu dute manifestazioan parte hartu dutenek. Era berean, egunotan herritarren partetik jasotako babesu eskertu dute langileek: "Egun gogorak izaten ari dira, baina gaurkoa izugarria izan da". ●



FOKU / ENDIKA PORTILLO

MOTZEAN

Burlatako etxegabetze bat gelditu du Iruñerriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak. Genero-indarkeriaren biktima den emakume bat eta haren bost seme-alabak, horietatik hiru 18 urtez beherakoak, etxetik bota nahi izan dituzte, baina ehun bat lagunek eragotzi dute. Kaleratze data atzeratu dute.

Joseba eta Eñaut Alvarez aita-semeak 2023ko San Sebastian bezperan "Etxera" zioen oihal handi bat teilatutik alderik alde jartzen saiatu ziren. Bertan poliziekin izandako tira-biraren ondorioz eskatzen zieten espetxe zigorretik libre geratu dira, eta isun bat ordaindu beharko dute.

Eusko Jaurlaritzak isunak kendu dizkie ertzainei euskaraz hitz egiteagatik zigortuak izan ziren Donostiako herritarrei, Manex Ralla eta Amaia Abendañori.

Urriaren 7ra atzeratu dute Korrikan migratzaileei muga zeharkatzen laguntzea egotzi dietenen epaiketa.

Ezkeltzu inguruan (Zizurkil) parke eolikoa eraikitzeko proiektua bertan behera utzi du Green Capital enpresak. Espainiako Aire Segurtasuneko Agentziaren irizpen teknikoak erabakigarriak izan dira.

Sistema duala abian da ikasturte honetan Hego Euskal Herriko Lanbide Heziketan, eta eredugarri saldu duten arren, arazotsua izaten ari da hainbat zentrotan: ikasle guztiek derrigorrezko praktikak egin ditzaten enpresak bilatzen "gorriak pasatzen ari dira" irakasleak, salatu dutenez.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Etxeko komuna



ULA IRURETAGOIENA

Euskadi irratan baineraren ordeztu jartzeko iragarkiak etxeko komunean obrak ya hastera animatzen duen kuña hori. Obra erraza, inbestitze txikia eta aldaketa handia iragartzen da. Komunitateko sanitarioen joerak aldatu dira eta ahoz aho zabaldu da zeinen eroso eta zabal gelditzen den komuna bideta kendu, bidet-mangeratxoak jarri eta dutxarako hanka altza beharrik ez denean.

Komunari eman diogun lekua beregain jasotzen duen karga kulturalaren emaitza da. Gorputzaren garbitasuna, buru eta aurpegiaren apainketa eta biluztasuna biltzen duen etxeko txokoa da, *glups*, ez da gutxi. Egiteko handiak gertatzen dira bertan baina ez da etxeko gelarik kuttunena edo zainduena izaten, funtzionala izatea eskatzen diogulako batik bat. Komunak etxearen fatxada zati bat izateko ohitura galdu dugu, aireztapen mekanikoarekin usaina eta hezetasuna berdin libratu dezakegunez, etxearen iluntasun guneetara barneratu dugu eta tamaina kendu diogu. Behin argi naturaletik aldentuta, bertan gertatzen dena denbora-funtzionala da, erlaxaziorako bainua harteak zentzua galduta.

Baina komunaren funtzionaltasunak ez dio komunari balio intimoa kentzen. Krisketatun gela izaten da eta askorentzat mundutik aldentzeko etxeko gune. Eta ezin ahantz ispiluaren aurrean gure aurpegia eta gorputz biluzia egunero ikustearen balio handia. Baina komunarekiko kontaktu emozionala mozteko intentzioarekin agian, komuna polita izateari uko egin diogu. Horretarako komunak beste balio espazial bat hartu behar du etxean, interes estetikoak bereganatzeko. Argi naturala komunetan berreskuratzeko funtsezkoa da, leiho batekin ez bada, pareta zehar-argien bidez, eta etxeko espazioekin lotura bisualen bat sortzea. Biluztasunaren gordailua izateagatik etxeko komuna itxia eta besteen bistatik aldentuta egin dugu, pribatutasunaren ideia espazial zurrin bat oinarrean hartuz. Etxeko komunean badago biluztasunaren inguruan zer berrizatu eta iraulketak ondorio espazialak izango ditu, ziur egon zaitezte. ●



RTVE

Trumpismoa Espainian

XABIER LETONA BITERI

Proces-aren aurkako epai gogorra 2019ko urrian atera zen eta horrek Bartzelona sutan jarri zuen. Testuinguru horretan, Espainiako Estatuaren bolo-bolo irakurri zen eskuineko prentsan jaregindako esaldi hau: "Espainiaren on beharrez, 50 urtero Bartzelona bonbardatu beharko litzateke". XIX. mendean karlismoa menderatu zuen Espartero jeneral liberalaren esaldia izan ei zen.

Esparteroren biografistek ukatu egin dute esaldi hori harena denik, baina baina berdin dio, ez bada haren esaldi bat, Espainiako eskuinak pertsonaia askatzen du tarteka, alde edo moldez. Oraingoan Jesús Fernández-Villaverde ekonomialari eskuindarrari egokitu zaio. Enric Juliana *La Vanguardia*-ko zuzendari albo-koaren kronikan irakurri ahal izan zen jeneralaren izena Madrilgo Rafael del Pino Fundazioan emandako hitzaldi arrakastatsuan. Fundazio hori Espainiako enpresa munduko lider esanguratsuenen erreferentziatiko bat da, eta Fernández-Villaverde trumpismoa Espainiaratu nahi duen ideologo berria, Julianaren aburuz.

Fernández-Villaverde aspalditik ari da ohartarazten PP: Voxekin gobernu ituna egiten ez badu, hauteskundeetako bere gehiengo oposizioan hilko da arrakastaz. Hemen bere errezeten osagai zahar berrituen muina: bat, eskuinen batasun autoritarioa era modernoan, hots, burdinazko eskua zetazko eskularruan; bi, teknologia berriek eta adimen artifizialak bultzatutako ekonomiaren hazkunde indartsua, merkatu are desarautu eta malguagoan, egungo EBk bermatzen ez duena.

Ekonomialariak Madrilgo konferentzian esandakoaren arabera, Espartero jenerala da Espainiako historian izan den pertsonaierik kaltegarriena, Lehen Gerra Karlistan (1833-1840) ez zuelako karlismoa suntsitu eta harekin akordioa egin zuelako. Horren ondorioz, gaur egun lau alderdi karlista daude Espainiako Kongresuan: Junts, ERC, EAJ eta EH Bildu.

Albo batera utzita historiarekiko zorrozatasuna, kontua da AEBko haize ufada berrien bultzadaz, Europako eskuin mota guztiak gobernu dantzarako prest direla, eta hurrengo dantzaldia Alemanian izango dela otsailaren 23an. Aurreikuspena: CDUko kristau-demokratik gailenduko dira, bigarrena eskuin muturreko Alice Weidelen AfD izango da, eta gobernuaren eratu ahal izango dute. Egingo dute? CDUk hainbat ate ireki ditu azkenotan, eta Elon Musk lagun, badirudi baietz.

Eta Espainian? Pedro Sánchezen gobernuaren zailtasunekin, Espainiako eskuin batua -PP-Vox, bat bitan- lanean ari da datozen hilabetei begira, edo asko jota, 2027ari so. Ipar-mendebaldeko haizea lagun dute. Fernández-Villaverdek ez zuen esan zer egin beharko litzatekeen "karlista" modernoekin, baina haren pentsamendua irakurtzea ere ez da horren gaitza kasu honetan. Voxek bere programan du alderdi abertzaleak legez kanpo jartzea, PPko Isabel Díaz Ayuso ados dago, eta popularren beste hainbat "baroi" ere bai. Muturreko beldurrak izoztu egiten du bat, baina beldurrik ez izateak inozotu. ●

20

urtetan, Ipar Euskal Herrian murgiltze eredu eta eredu elebiduna eskaintzen duten ikastetxeak %42 izatetik %71ra igaro dira, Lehen Hezkuntzan. Beste era batera esanda, frantsesezko eskola elebakarrak 2004an %58 izatetik gaur egun %29 izatera igaro dira.

200

sinadura inguru bildu ditu Palestinarekin Elkartasunak mugimenduk, Maccabi saskibaloitalde israeldarraren eta Baskoniaren arteko lehia (otsailaren 7an) bertan behera uztea exijitzeko.

6

urtean hiztunen erdia galdu du bretoierak, azken ikerketaren arabera. Britainian, bretoiera oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten duten herritarrak %2,7 dira, 107.000.

“Haurrek klubetan oinarritutako kirola baino ez balute, sistema elitista eta baztertzailea eraikiko litzateke, talentua dutenen inguruan egituratua”

GOIZANE ALVAREZ

Gipuzkoako Kirol diputatua. Kirol klub batean aritu nahi duen haurrak ez duela zertan Eskola Kirola egin dioen epaiari helegitea jarriko dio Diputazioak.

EL DIARIO VASCO (2025-01-28)



“EZ DUTE BALIO PROMESEK; EGITURAZKO ARAZOEK BENETAKO KONPONBIDEAK BEHAR DITUZTE”

OSASUNGINTZA PUBLIKOA AURRERA

Milaka lagun mobilizatu dira, Jaurlaritzari eskatzeko Osakidetzaren egoera konpon dezala.

2025-02-01



“Benetan behar duguna da aberastasun natural, kultural eta soziala errespetatuko dituen aldaketa ekonomiko eta soziala”

URUMEAKO MENDIAK BIZIRIK

Bailaran egin nahi dituzten makro-proiektu eolikoek aurkako ekintza eta mobilizazioak aurkeztu dituzte.

ARGIA.EUS (2025-01-28)

TEKNOLOGIA

Kanpokoa mehatxu



DIANA FRANCO EGUREN

Zutabe hau idazten nengoela, gaia datu behar izan dut, nire arreta osoa harrapatu dutelako Trumpen mugazergak. Azalpen gutxi beharko duzue, leku guztietan da berria, Txinako produktuei %10eko zerga eta Kanadako eta Mexikoko produktuei %25eko muga-zergak jarri dizkie. Trumpek argudiatzen duena: AEBetan fentanilo drogari lotuta duten arazo larria hiru herrialde horiek sortu dutela; Txinak eta Kanadak fabrikatzen dutelako, eta Mexikok banatzen duelako. Interesgarria litzateke aztertzea zergatik zabaldu den hainbeste fentaniloaren merkatua AEBetan.

Horrela gauzak, badirudi kanpokoa den oro mehatxu bilakatzen ari dela AEBetako lehendakari eta bere jarraitzaileentzat, eta horren inguruan neurriak hartzen ari dira: herrialdean sartzeko bisak zorrozten, aipatutako muga-zergak ezartzen, mehatxu diren herriak bonbardatzen azalpen askorik gabe... Badirudi zenbaitek ez dakiela begitaratean etsai bat izan gabe bizitzen. Ez ote dabilta munduan ziurgabetasuna sortzen, barruko arma-industria hauspotzeko? Hainbestetan ikusi dugu istorio berdina...

Baina badute AEBek antzinako itzeltasun amestu hori berreskuratzeko aukerarik? Pentsatzen al dute herri horretako biztanleek industria berpiztuko dela kanpotik datorren guztia debekatuta? Eta horrela balitz, aberastasun horretatik zer eskuratuko lukete eurek? Nik ez dut oso argi, beste garai batean gaude, non aberastasuna gero eta esku gutxiagotan batzen den, automatizazioak lanpostu kopuruetan eragin duela, besteak beste. Ditugun teknologiak eta antolatzeako moduek lanaren zentzua aldatzen dihardute. Beste era batean pentsatzen hasi behar dugu langileok. Bitartean, itzeltasun horrek euren bizitzetan izango duen eraginaz esperantza gutxi duen AEBetako langile digital asko Mexikora doaz bizitzera. AEBetako merkatu digitala ustiatuz eta Mexikoko herrian euren gaitasun ekonomiko handitua gozatuz. León Larregui Mexikoko Zoe taldeko abeslariak honakoa proposatu du sarean: AEBetatik Mexikora lan egitera doazen migrantei bisa eskatzea. ●

NAZIOARTEA



MONUSCO / CLARA PAVODAN

Gatazka armatua Kongon

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Kongoko Ipar-Kivuko Goma hiriburua bereganatu du Martxoak 23 talde armatuak, joan den astean. Zabalpena aitzina doa eta herri-tarrak karrikara atera dira, M23aren aurka eta Ruandak eta Mendebaldeak erakunde armatu horri erakutsitako sostengua salatzen. Kongoko probintzia horiek mineralez aberatsak dira eta lur horien gaineko kontrola ere dute gatazkaren oinarrian.

Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Belgika, Uganda, Ruanda... Herri andanaren enbaxadak jomugan hartu dituzte urtarrilaren 28an, Kongoko Errepublika Demokratikoko hiriburu bideraturiko matxinadetan. Horatik 1.500 kilometrora den Goma hiria Martxoak 23 erakundearen eskuetan gelditu izana da eraso horien arrazoia: Ruandak babesten duen M23 taldea Mendebaldeak ere sostengatu izana ez dute onartzen. Gobernuaren kontra dabilen talde armatuaren zabalpena aitzina doa azken hilabeteetan eta bizkortu egin da urtarrilaren 25az geroztik. Duela bi urte egituraturiko Kongo Ibaier Aliantza taldearen laguntza ere du M23k. Azken hori sortu zuen Kongoko Errepublika Demokratikoko presidente Felix Tshisekedi-ren aurkari nagusietariko den Corneille Nangaa-k.

Krisi politikoari aterabide bat atzeman nahian, EAC Afrikako Ekialdeko Komunitateak bilera berezia egin du. Angolako presidente Joao Lourenco dabil bitartekari lanetan, eta M23ren "legez kanpoko okupazioen" bukaera

eta Ruandako armadaren "berehalako atzera-egitea" galdatzen ditu. NBEaren Segurtasun Kontseiluak ere talde armatuaren jarrera salatu du, Kongotik ateratzea galdatuz Ruandako armadari.

Gomako erasoek hildako eta kolpatu andana eragin ditu. Desplazatuei dagokionez ere, "egoera benetan kezagarria" dela errepikatu du NBEk. Golanen, demagun, milioi bat dira eta Kongo osoari begiratuta, urte hastapenetik 500.000 lagunek dute beren bizitokia utzi. Gaur egungo gatazkaren oinarrian kokatzen den 1998-2002ko Kongoko Bigarren Gerraz geroztik, herrialdearen ekialdeko 6,2 milioi pertsonak desplazatu behar izan dute.

M23ren eta Kongoko armadaren arteko borroka bukatzeko su-eten bat sinatu zuten Kongoko eta Ruandako buruzagiek iragan uztailaren 30ean. Abuztuaren 4an sartu zen indarrean, baina behin baino gehiagotan urratu izan dute bataz zein besteak.

Ipar-Kivu eta Hego-Kivu probintziak mineralez aberatsak dira -batez ere koltana eta nikela, smartphoneetan erabiltzen direnak-. Berez, CNDP Herriaren Defentsarako Batzar Nazionala milizian egondakoak dira M23ren sortzaileak, eta 2009an Kongoko Gobernuaren eta CNDPkoen artean adosturiko ituna errespetatu ez izanagatik berrarmatu ziren 2012an, M23 egituratuta. Besteak beste, itunak zioen matxinoek zutela lur horien kontrola. Hori errespetatu ez izana leporatzen diete Kongoko buruzagiei. ●

MAYOTTEKO PAPERGABEAK: CHIDO ZIKLOIAREN BIKTIMA IKUSEZINAK

Gurera ekarri dugu Achille Mbenbe politologo kamerundarraren "nekropolitika" terminoa.

Heriotzaren prismatik begiraten die herritartasunari eta botereari, eta argi uzten digu pertsona multzo batzuen biziak gutxietsiak, balio gabekoak eta beraz, lasai asko desagertu daitezkeenak direla. Botereak –eta agintariek– bizitzetan nola eragiten duten ari da aztertzen. Hortik begiratu diogu *Chido* zikloiaren biharamunari. Ofizialki, "berrogei bat" hildako izanik ere, errealitatean "milaka edo dozenaka milaka" izan direlako. Nekropolitikak dakarren irakurketagiltzei esker bakarrik ulertu daiteke alde hori: frantses herritartasuna dutenak kontatu dituzte, atzerritarrak ez. Dena den, aitzinetik ere ez zituzten kontsideratzen txaboletan bizirautez zebiltzan papergabeak. Hori da nekropolitika, Frantziako Estatuak daramana.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bi hilabete pasa dira *Chido* zikloiak Mayotte irla zeharkatu zuenetik. 220 km/orduko haize-boladekin, azken 90 urteetan ikusi gabeko zikloirik bortitzena izan dute, guneka guziaz eramanik bere zurrumbiloan. Ofizialki, "berrogei batek" dute bizia galdu, baina egiazki, "milaka edo dozenaka mila" dira. Nolaz egon daiteke horrelako aldea? Nekropolitikaren adibiderik ezin hobea dugu hor. Achille Mbenbe ikerlari eta politologo kamerundarrak 2003an zabalduko terminoa da nekropolitikarena: heriotzaren prismatik begiraten die herritartasunari eta botereari, azaltzeko pertsona multzo batzuen biziak –bere artikuluan, pertsona arrazializatuenak– gutxietsiak eta balio gabekoak direla, hots, hilda ere faltan botako ez genituzkeenak.

Chido-ren desmasian hildako papergabeak ez dituzte zenbatu ahal izan, frantses herritartasunaren pean erroldaturikoak bakarrik kontuan hartu dituzte. Mayotten bizi direnen herena da papergabea, 100.000 eta 200.000 artean. Mayotte irla Indiako Ozeanoan kokatua da, Madagaskar eta Mozanbike artean, eta Frantziako Metropolitik 8.000 kilometroetara izanikan ere Frantziako Estatuaren parte da.

Iragan kolonialak eta neokolonialismoak ondorioztaturiko pobrezia dela eta, bizi baldintza hobeen esperoan, ez da harriagarria hurbil-hurbil duten "Frantzia" horretara joan nahia. Mayotteko Barne Produktu Gordina (BPG) Komoreak osatzen duten inguruko hiru irletakoa baino 13 aldiz handiagoa da, eta Madagaskarrekoa baino 25 aldiz handiagoa.

Hori bai, 1841ean kolonizaturiko lurpuska hori Pariseko begiradatik bigarren mailakoa gelditzen da –nekropolitikaz hitz egin dezakegu hor ere–: BPG Frantziako Metropolian baino 3,5 aldiz apalagoa da eta %77 dira pobrezia langaren pean bizi. Baina auzo-irlan daukatena baino hobea izanik, nahiago bertaratu. "Mayotteko komoretarrei dagokienez, niretzat zaila da 'migratzaile atzerritarrez' hitz egitea. Herri bakarra dago. Herritar horiek, Mayotten, Anjuanen edo Komore Handian sortuak izanikan ere, hizkuntza bera partekatzen dute, erlijio bera, ahaidetasunaren ikuskera bera dute, elkarren artean ezkontzen segitzen dute. Ezerk ez ditu bereizten, ez bada lurralde horretako batzuk frantses herritartasunaren pean batzen direla eta besteak ez", dio Sophie Blanchy etnologoak. Gaur egungo egoe-

ra ezin daiteke ulertu Frantziaren iragan kolonizatzailea kontuan hartzen ez bada. 1841ean Mayotte kolonizatu zuen, eta 1886an inguruko hiru irlak –Anjuan, Komore Handiak eta Moheli–. Lauak elkartu zituzten "Mayotte eta dependentsiak" izena jarrita koloniari. Ordura arte, alta, irla bakoitza independente zen, bakoitzak zuen bere sultan propioa, eta modu baketsuan zein elkarri gerra eginda aitzina zihoazen. Mayotte hartuko zuten hiriburutzat, eta kolonoekin harremanean, lekuko burgesia bat garatuko zen bertan. 1960ko hamarkadan abiatuko zen Afrikako kolonien deskolonizazioa. Komoreetan, haatik, ez.

1974KO ERREFERENDUMA, LEGEDIAREN GAINETIK PASATA

1974an antolatu zuen Parisek independentziari buruzko erreferenduma. Argiki hitz egin zuten emaitzek: komoretarren %95ak independentziaren alde egin zuen. Baina Mayotteko %63ak Frantziaren barne egoitearen alde eginik, NBEren legediaren gainetik pasa eta Mayotte bere menpe atxiki zuen Parisek, beste hiruei independentzia itzulirik. NBEk dio kolonia ohien mugak errespetatu behar direla independentzia



AP

PAPERGABEEI ATEAK HETSIRIK

Mayotten %77 dira pobrezia- langaren pean bizi, eta aterpeen %38 dira txabolak. *Chido* zikloiak guzia suntsitu zien iragan abenduaren 5ean, milaka hildako eraginda. Orain, berreraikuntzak baino garrantzia gehiago du migrazioaren kudeaketak, Frantziako Estatuako agintarien ikuspegitik. Are gehiago gogortu nahi diete frantses herritartasuna lortzeko bidea.

itzultzerakoan. Mayotte bereizteagatik, hoguei bat aldiz kondentatua izan da Frantziako Gobernuak. Bisa bati baldintzatu zituzten Mayotteko egonaldiak 1995ean: Geografikoki eta kulturalki hurbil diren komoretarren artean muga bat jarri eta gainera, Mayotteko senideei ala lagunei bisita egitera etorritakoa "klandestino" bihurtu zuten egun batetik bestera.

Chido zikloia- ren biharamun hone- tan, berreraikuntzaz ez, immigrazioa- ren kudeaketaz du axola Parisek. Eskuin muturraren erretorika bereganaturik, "immigrazioak gaina harturik" duela ber- rretsi egin du François Bayrou Lehen mi- nistroak. Agiri bat zabaldu dute Barne ministro Bruno Retailleauk, Itsasoz ha- raindikoko ministro Manuel Vallsek eta Ar- madaren ministro Sébastien Lecornuk: "Migrazioari buruzko fermutasunik gabe, harearen gainean berreraikiko genuke Mayotte". Hildakoe- kiko eta doluan direne-

nekiko errespetu eta begirune eza jasan- gaitza deke komoretarrentzat.

HERRITARTASUNAREN LORPENA, GOGORRAGO MAYOTTEN

Frantziako Estatuan sortzeak frantses her- rritartasuna dakar 18 urterekin. Sorlekua- ren arabera herri- tartasuna bermatzen duela Frantziako Konstituzioak. Bada, 2018ko irailaren 10eko legeak eskubidea mugatu zien Mayotten sorturikoei: herri- tartasuna dute, baldin eta bi gurasoetari- ko bat behintzat egoera erregularrean bada aitzineko hiru hilabeteetan. Are gogorra- ren aitzineko hamabi hilabeteetan bi gura- soak erregularitasunean izatea nahi dute.

Nekropolitikaren barne da legediaren aitzineko mailakatze hori ere. 2014az geroztik, bakarrik Mayottentzat balio dute egonaldi- baimenek -beste departa- mentuetarako sarrera debekatua zaie-.

Nicolas Roinard soziologoak argiki dio: "Barne- muga bat jartzen du estatuak -bizi daitezkeen- herritarren eta -hil beharreko- ez- herritarren artean".

Giroa okaztagarria da irlan: bakar batzuek, baina estatuaren konplizita- tearekin, berenganaturik dutelako nekro- politika. Badabilta Atzeritarren Bulegoaren sarrera okupatzen, erregu- larizazio eskaerak blokeatzeko gisan. Pentsa, iaz bizpahiru hilabetez irekita atxiki ahal izan zituzten bulegoak. Etor- kinak laguntzen dabilen Cimade elkar- tearen egunerokoa ere dute zapuzten.

Erregularizazio prozesua etenik, zen- bat mila dira "klandestino" bihurtu? Eta horietarik zenbat eraman zituen *Chido*- k? Biharamunean jakin da, zikloia- ren abisua- ren berri ukanda ere, txabolan gelditu zirela, kanporaketaz beldur, babesgune- tarako deia zepo bat zela pentsaturik. Nekro- politika gobernatzeko du Mayotte. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegoptika.com



Julen Goldarazena, *Flako Fonki*

XAKEA ETA JOTAK



EZ DAKIT EUSKARA HOBETU DUDAN EDO LOTSA GALDU, BAINA HORREK OSO POZIK JARTZEN NAU



Aurretik bistaz ezagutzen banuen ere, musikaren munduak hurbildu gaitu Julen Goldarazena eta biok. Segituan ezagutu nuen *Flako Chill* Mafiak erakusten zuen irudi horretatik harago eta horrek baldintzatu dizkit, hein handi batean, proiektuarekiko harremana eta iritzia. Lauzpabost urteko ibilbidearen ondotik, bukaera iragarri du berriki talde iruindarrak. Jotak kantatzen eta xakean ari da orain, besteak beste, Julen.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Zergatik geratu gara Mendillorriko Elorri eskolan?

Esan zenidan niretzat berezia zen leku bat proposatzeko. Nik beste eskolan ikasi nuen, goiko Mendillorrikoan, Mendigoitin [Iruñeko Mendillorri auzoak goiko eta beheko parteak ditu]. Baina nerabezaroan, 14 edo 15 urte nituenean, Mendillorriko gazteria elkartzen zen lekua zen hau.

Hona etortzen hasi nintzenean, nire betiko zirkuituetan ez zegoen jendearekin harremanetan hasi nintzen: neskak, ijitoak, jende helduagoa... Hemen ezagutu nituen Ben Yart eta beste musikari asko. Nire bizitza markatu zuen garai hark eta oso oroitzapen politak ditut.

Zer egiten zenuten?

Gazteen gauzak. Eskolako gurasoei ez zien graziaz egiten eta 18:00etarako egiten zuten alde eskolatik haurrekin eta orduan sartzen ginen gu.

Agian ez zitzaielako iruditzen haurrendako eredugarri zinetenik?

Hori da. Ea, denetarik zegoen. Bazen jende bat esku pilotan aritzen zena, futbole, kartetan, saskibaloian... Droga salerosketa handia ere bazegoen eta hori nahiko zakarra zen, baina egia da Mendillorriko gazteek ez genuela egoteko lekurik eta horrek ere bazuen eragina. Baina ez pentsa deus berezirik egiten genuenik ere.

Ben Yart han ezagutu zenuela esan didazu.

Bai, bera garai hartan dagoeneko ari zen beste rapero batzuekin musika egiten. Niretzat aita espiritual modukoa izan zen musikari dagokionez. Oso hurbil genuen morroia zen, gauza desberdinak egiten ari zena. Traperos de Emaús eta La Grifa ere asko entzuten nituen, baina Ben Yarten bitartez ikusi nuen posible zela beste gauza batzuk egitea.

Horrek lagundu zizun musika egiten?

Bueno, horrek kendu zidan lotsa, gogoa banuen aurretik. Urtasunek [Xabier Urtasun, laguna] eta biok rap asko entzuten genuen eta biok genuen buruan musika egitea, rapa egitea.



Julen Goldarazena

IRUÑEA, 1999



Flako Fonki ezizenez da ezagunagoa Julen Goldarazena Laborda. Bi goimailako gradu egin ditu: grabatu eta estanzazio teknikan bata eta ikus-entzunezkoetan bestea. Espainiako rap eszenarekin obsesionatua zegoela hasi zen musika egiten. Txikitatik izan du harremana euskal kantagintzarekin, baina pandemia garaian birkonektatu zuen mundu horrekin eta bide horretan segitzen du. Chill Mafia talde ezaguneko kide ere bada.

Zein distantzia dago Julen Goldarazengandik *Flako Fonki*-rengana?

Ez hain handia. Julen Goldarazena pozik dagoenean ez dago hainbesteko distantziarik bien artean. Baina oso pertsona dudatsua naiz eta segurtasun falta handia dut. Horren ondorioz, esan daiteke depresio ziklo modukoak izaten ditudala eta, hortaz, triste nagoenean handiago dela Julenen eta *Flako*-ren arteko distantzia. Ez dut uste Bilbon bizi eta handik ikusten nauen norbaitek joera depresiboa dudala pentsatuko duenik, kanpora begira ez dut irudi hori ematen.

Flako Fonki da Julen Goldarazengaren aldarte alai eta irekia, baina nire barruan izaera ezberdinak bizi dira. Maiztasun handiz jartzen naizeenez triste, ez nuke esanen Julen eta *Flako* gauza bera direnik, baina ez nuke esanen ere *Flako Fonki* antzez-tua denik.

Hori esan behar nizun, *Flako Fonki* pertsonaia bat da?

Ez dakit. Esan daiteke pertsonaia dela, baina nik Julen gisa ere antzeztuten dut pertsonaia hori egunerokoan, hein batean. Uneoro ironia erabiltzea, tontakeriak egitea... nire parte ere bada, famatua izan ala ez, horrela izanen nintzateke kalean.

Eta harreman ona dute Julenek eta *Flako*-k ala haserretu dira inoiz?

Adibidez?

Julen triste egon den momenturen baten *Flako* gauza batzuk egitera behartuta egotean.

Bai. Orain gutxiago agian, baina Chill Mafiak eztanda egin zuenean niretzat bai izan zela gogorra, erabat depresiboa nengoelako garai horretan. Kanpora begira nuen irudiari –nik neuk sortutakoari– ezin nion eutsi. Oso gaizki nengoen eta oso gogorra izan zen. Askotan izan nituen gatazkak nire barnean eta musika uzteko gogoia ere izan nuen. Edo, musika baino, irudi publikoa.

Chill Mafiarekin batera hilko da *Flako Fonki*?

Ez dut uste. Testuinguruaren arabera-

koa da hori. Norbaitekin bakarka nagoenean sentikorragoa naizela esanen nuke. Entzunen zaitut, ongi erantzunen dizut... Eta nik uste egoteko modu horretatik hurbilago egonen naizela hemendik aurrera. Musika bakarrik egiten hasten banaiz, ez dut uste jendeari adarra jotzen ibiliko naizenik. *Flako Fonki*-k hasi duen bidea segituko dut, afera folklorikoak-eta, baina orain arteko jarrera alde batera utzita.

Chill Mafiarekin musika egiten genuenean saihestezina zen denari barre egitea, ez zen deprimituta nengoe-la esateko momentua, ez lekua. Agian orain bai, ez dakit.

Adin kontua ere izan daiteke?

Zer?

Chill Mafia 20 urteko mutil kuadrilla bat izateak bere horretan zekarrela modu zehatz batean jokatu behar izatea eta pasa dela garai hori.

Bai, posible da, ez dakit lasaitze hormonala den edo... Eta musikari dagokionez, badakit orain *Kiliki*-rekin [*Kiliki Frexko*, Chill Mafiako kide ere baden Beñat Rodrigo] kanta bat egingo banu, adibidez, ez litzatekeela *Barkhatu* bezalako kanta izango.

2021ean ez zenekien nor zen Sarri eta duela egun batzuk entzun zaitut bere letren inguruan hizketan Euskalerrria Irratian. Adibide bat besterik ez da, baina balio dit galdeztzeko ea zein bide egin duzun duela lau urtetik hona erreferentziei dago-kienez.

Egin dudana bidea izan da nahi nuen lekutik segitzea. 2020an hasi nintzen euskal musikan sakontzen.

Chill Mafia abiatzarekin batera?

Ez, horren ondoren sortu zen taldea. *Kiliki* eta biok garai hartan euskal musika asko ari ginen entzuten eta horrek motibatu gintuen Chill Mafiari hasiera ematera. 2021ean euskal musikan sakontzen ari nintzelarik topatu nuen hazia, asko maite dudana euskal musikaren hazi hori, eta horri segituz heldu naiz Sarri nor den jakitera. Bere poesiarengatik, Mikel Laboari idatzitako hitzengatik, *Sarri Sarri* abesti famatuagatik...

“**BE**Cen bukatzea zergatik? **Jaso ditzakegun kritika guztiez harago, han 6.000 pertsona biltzea sekulakoa da guretzat”**



Horretaz aparte, euskal musikan interesa hasten zaizunetik, zein bide egin duzu entzule gisa?

Ez dakit Arreta Defizitaren Nahasmen-duagatik ote den, baina nahiko obsesiboa naiz. Dena den, epe laburreko obsesioak izaten dira. Azken urteotan euskal folkloreak gain, folklore espainiarra ere entzun izan dut. Musika mexikarra, countrya... Egia da maitasun berezia diodala hementxo eta epe motzeko obsesio horietatik harago doala hau.

Bideari dagokionez... Begira, demagun Mikel Laboaren kanta bat entzutean ikusten dudala letra Joseba Sarrionandiarena dela, horren Wikipediako profileen sarzzen naiz orduan eta begiratzen dut zein letra gehiago idatzi duen. Abestiren batean sartu eta deskubritzen badut artista hori gustatzen zaidala, hor hasten da obsesioa. Kate moduko bat da... PinkPantheress ari naiz entzuten orain, britainiarra da eta oso modan dago une honetan. Eta Ice Spice ere ari naiz asko entzuten.

Chill Mafiaren bidez zerekin geratzen zara eta zer ez zenuke errepikatuko?

Gaurko Julen Goldarazena damutzen da zenbait istilutan sartu izanaz. Orain-txe bertan ez nuke inolaz egingo. Nire erronketako bat da hori: istiluak alde batera utzi eta lasai bizitzea. Egindakoa eginik utziko nuke, baina ez dut hortik segitu nahi. Damutzen naiz pertsonalki, baina ez artistikoki. Eta gauza onak, ba ez dakit, harreman asko egin dut horren harira. Behartu nau lotsak lantzer eta nagoen tokira heltzen lagundu dit.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko panorama musikala momentu honetan?

Egia esan, ezin dut honetaz gehiegi hitz egin. Azken bolada honetan ez naiz euskal musika garaikidea entzuten aritu. Berriki Olaia Inziarteren diskoa entzun dut, adibidez, eta izugarria iruditu zait. Gero bada- kit badaudela talde *guay* asko: zuek - Ibil Bedi -, TOC, Tatxers... burura datozkidan lehenak dira. Baina ez dut uste pertsona aproposena naizenik musika garaikideaz galdetzeko, entzuten dudana euskal musikaren %90 beste garai batekoa delako.

Jotak kantatzen ere entzun zaitugu azkenaldian. Baduzu asmoa hortik segitzeko?

Bai. Izan ere, datorren astean Mirua taldeko Mattinekin geratu naiz jota bat egiteko. Ez dakit zehazki nola, baina bai, uste dut hortik segituko dudala. Beti gustatu izan zait bertako folkloreaken parte diren adierazpenak hartu eta nire egitea. Jotak edo bertsoak ere izan daitezke. Countrya ere maite dut, baina ez dakit hori egiten ikusten dudana nire burua... Jotek harrapatzen naute bereziki, sinpletasunagatik-edo.

Chill Mafiarekin ere atera genuen jota bat, *Jota ACAB* [orain *La del perro*]. Baina hori pixka bat txantxetan izan zen. Egingo dudana hurrengo jota lasaiagoa izan dadin saiaturiko naiz. Lorena Álvarezek badu bat, *La mano ardiendo*, uste dut hortik jo nahiko nukeela.

Norbaiten onespena behar duzu?

Bai, behar dut eta asko. Segurtasun arazo handia dut eta egiten dudana guztia zaborra dela pentsatzen dut askotan.

Eta norengana jotzen duzu horrelakoetan?

Normalean ez dut egiten dudana musikariekin konpartitzen, musikari ez diren lagunei bidaltzen diet gehienetan, presio gutxiago sentitzen dut haiekin. Baina bada landu beharko nukeen beste gauzetako bat.

Xake klaseak ematen ere hasi zara zure Youtubeko kanalean. Zein da helburua?

Beti gustatu izan zait xakea, baina hor bi gauza daude: batetik, *Barraka* programan parte hartzen hasi nintzelarik pentsatu nuen modu batean ala bestean Euskal Herri mailako pertsona publiko izatea gustatuko litzaidakeela eta, bestetik, lagun bat xakean aritzen hasi zen. Youtubera xake klaseak igotzea izan zitekeen modu bat nire lagunari laguntzeko eta, era berean, pertsona publiko izaten segitzeko.

Baina gauza gehiago daude hor: euskaraz edukiak sortzea ere inportantea iruditzen zitzaidan eta uste dut xakearen bueltan ez dagoela horrelakorik.

Uste duzu horrekin izan zaitzekela erreferente?

Ez dakit. Justu xakea eta euskara bi kontu gutxitu dira eta ez dut uste hau *mainstream* bihurtu daitekeenik.

Baina *mainstream* bilakatu gabe, beste gauza batzuegatik erreferente gisa zaituen jende batek xake klaseak euskaraz ematen ikus zaitzake Youtuben orain.

Bai, egia da. Batzuetan ahazten zait

jendearentzat pertsona bera direla Julen Goldarazena eta *Flako Fonki*. Niretzat Julen Goldarazena izango litzateke xakean ari dena eta *Flako Fonki* orain arte publikoki egin dudana guztia egin duena.

Bai, ulertzen dut.

Egia esan, motibo neurekoiagoetatik harago, hau da, pertsonaia publiko izateko nahi horretatik harago, tematuago nago euskararen kontuarekin azken boladan.

Esparru militanteagoetan hasi naiz mugitzen, Ezker Abertzalearen bueltan militantzian topera dabilen jendearekin elkartzeko eta enpatizatzen dut gauza askotan haiekin. Komunitate horretatik hurbil egoteak grazia egiten dit eta ilusioa ere bai.

Horrek hurbildu zaitu euskarara?

Uste dut baietz. Azken hilabeteotan pila bat hobetu dut euskarara. Ez dakit euskarra hobetu dudana edo lotsa galdu, baina horrek oso pozik jartzen nau. Ez afera politikoagatik, baizik eta pertsonalagatik.

Bueno, politikoa ere bada.

Bueno, bai.

Euskarak presentzia handiagoa izan ezan lekua egiten saiatu zara ala egin dituzun gauzek ekarri dute euskara erdigunera?

Ez dakit esaten. Beti izan dut harreman berezia euskararekin. Chill Mafian bertan, azken diskoan euskaraz dagoen kantu bakarra nik kantatzen dut edo lehenengo diskoan dauden nire abesti guztiak euskaraz direla uste dut. Beti egon izan da hor.

Agian Chill Mafiaren hasieran ez nuen euskal munduarekin hainbeste harreman izan, momentuko "gaizkileak" ginelako eta errespetu pixka bat ematen zidalako, baina orain denbora pasa dela, lehenago eginen ez nituzkeen gauza batzuk egiteko prest nago eta badut gogoia.

Ez naiz militantea ezta askoz gutxiagorik ere, baina hortik hurbildu nago.

Adimen Artifizialarekin [AA] jolasean ere aritu zara.

Bai. Uste dut Internetek baliabide eta tresnak eskaintzen badizkit, erabiltzen dituen horietakoa naizela, batez ere, mundu artistikoarekin lotura baldin badute: ilustrazioak, memeak, musika...

Orain modaz pasa da eta ez dit deus berezirik aportatzen, baina hasieran erokeria iruditu zitzaidan, zentzurik

onenean. *Montón the mixtape* 2009 ize-neko kantu bilduma bat egin genuen, baina hori bai izan zela txantxetan.

Bideogintzan edo ikus-entzunezkotan aferak aurrera nola egiten duen interesatzen zait, batez ere.

Zergatik BECen Chill Mafiaren bukaera? Batetik, Euskal Herrian bukatzeko eta, bestetik, diruagatik. Jaso ditzakegun kritika guztiez harago, 6.000 pertsona BECen biltzea sekulakoa dela guretzat.

Eta zer iruditzen zaizu areto handiak betetzaren moda hori?

Alde egoztrista batetik ongi iruditzen zait edo, hobe esanda, ongi datorkigu. Musikatik edo honen bueltan egin daitekeenetik bizitzen saiatu gara orain arte eta zentzu horretan horrelakoak egitea ongi iruditzen zait.

Egia da, aldi berean, hainbeste jende mobilizatzeko gaitasuna duten taldeak gutxi garelako eta ez dakidala zein onura ekartzeko dion alde horretatik euskal musikaren komunitateari orokorrean. Ez dut iritzi ez ezagutza handirik astakeriarik esan gabe gai honetaz hitz egiteko, beraz, esan dezakedana da ulertzen ditudala kontzertu eredu honen aurkako kritikak. ●

Otsailekoa, kalean!



EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Demokraziaren muga geopolitikoak

Mendebaldeko herrialdeetako demokrazia liberalak demokrazia minimalista baten itxura gero eta handiagoa du. Definizioaren muina litzateke hauteskunde bidezko gobernu aldaketak errespetatzen direla. Horren aldaera autoritarioari Levitsky eta Way politologoek *autoritarismo lehiakorra* deitu zioten. Lehia bai, baina oso desorekatua da, agintean dagoenak estatuko balia bidez guztiak bere alde erabiltzen dituelako, eta oposizioaren garaipena zaildu.

Horrelako herrialdeetan neurri autoritarioak defendatu ohi dituzte, esanez beraien gizarte zibila kanpo intresekin bahitua dutela. Sarritan ez dute arrazoirik falta, izan ere, beraien herrialdeetan Mendebaldearen esku-hartzea lotsabakoa da. Horien aurka, baina, interes nazionala defendatzeko aitzakia pean, batzuetan neurri ulergarriak hartzen badituzte ere, beste askotan aitzakia bezala erabiltzen dituzte autoritarismoa hauspotzeko.

Mendebaldean ez gaude hobeto. Gure gizarte zibila ez dago txinatarrek, errusiarrek edo irandarrek bahituta, baina Mendebaldearen hegemonia kulturalak pitzadura txiki bat du: Interneta. Horrek gure demokrazia liberalak autoritarismo lehiakorrera gerturatu ditu, zentsura erabilia, disidenteak jazarrita eta behar bada kanpo esku-hartzea aitzakia bezala hartuta, erabaki autoritarioak hartzeko.

Thierry Breton-ek, 2024ra arte Europako Barne Merkatuko komisarioa

Azken urteetan sare sozialen eta hedabideen zentsurara ohitu gara, baina baita adierazpen askatasunaren jazarpen geroz eta zabalagora ere. Gehiengoari bost axola zaio

izandakoak, iradoki du EBk Errumanian hauteskundeak bertan behera utzi dituela kanpo esku-hartzeagatik eta beharko balitz Alemanian gauza bera egiteko prest egongo litzatekeela.

2024ko azaroaren 24an Errumanian hauteskunde presidentzialetan Călin Georgescu-k, eskuin muturreko hautagai subiranistak, lehen itzulian ezustean irabazi zuen. Mendebaldean alarma guztiak piztu ziren. Ez, noski, bere nazionalismo kontserbadoreagatik, horrek eta faxisten oinordekoa izateak ez du arazorik sortzen EBn, betiere NATO zalea bazara (ikus Giorgia Meloni), baizik eta jarrera atlantista epelagatik eta Errusiarekin bakea lortzeko borondatea izateagatik.

NATO Errumanian Europako bere base militar handiena eraikitzen hasi da. Espero da 3.000 hektareako zabale-za izatea eta 10.000 pertsona hartzea.



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Gauzak horrela, ez da harrigarria Errumanian epaileek hauteskundeak balio gabetu izana eta bigarren itzulia bertan behera uztea. Aitzakia? TikTok. Antza, atzeritik kudeaturiko kontu faltsu asko zeuden Georgescuren hautagaitza sustatzen. Akusazio guztiak Moskura zuzendu ziren, noski. Beranduago, baina, jakin dugu TikTok-eko kanpaina Alderdi Nazional Liberalak (Europako Alderdi Popularrerako kideak eta egungo presidentearen alderdiak) ordaindu zuela. Hots, presidentearen alderdiak sare sozialetako kanpaina bat ordaindu zuen Georgescuren alde eta, gero, inteligentzia zerbitzuek hauteskundeak bertan behera uzteko kanpaina hori erabili zuten aitzakia bezala "atzerriko esku-sartzea" frogatzeko.

Sinesgaitza da berriak gurean izan duen oihartzun eskasa. Azken urteetan sare sozialen eta hedabideen zentsurara ohitu gara, baina baita adierazpen askatasunaren jazarpen geroz eta zabalagora ere. Gehiengoari bost axola zaio, bere iritziak edo ikuskerak transmititzen dituzten hedabideak edota *influencer*-ak ez badira. Aspaldi ikasi genuen multinazionalak eta finantza munduak gure demokrazia bahituta dituztela, baina orain gutxienez hiru urte beteko dira bahiketa horretan protagonista berri dirdiratsua agertu zela: geopolitika. Gaur eskuin muturra da, bihar ezkerria izan daiteke, eta ez litzateke lehen aldia, bestela gogoratu Gladio operazioa. ●

Irakasle-klaustroak edo mundua nola hobetu



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA

Erretiratu berri den lankide-ohi baten omenez, Historiako irakaslea. Bejondeizula!



DOM CAMPISTRON

Hezkuntza-legeek azpimarratzen dute zein garrantzitsua den ikasleengan pentsamendu kritikoa sustatzea. Baina irakasle-klaustroak, garai batean ideien eztabaidarako eta proposamenak kontrastatzeko guneak, egun bilera isilak bihurtu dira, non zentroko zuzendaritzak egin beharrekoaren berri ematen duen: beti "goitik" dator eta eztabaidatu ezinezkoa da. Gehienez iruzkin irrigarriren bat eta algara urduri batzuk entzungo dira, protesta txiki lagin gisa, inolako eragingabeak.

Dena aurre-kozinatuta datorkigu (horrela etorri behar zena izan ezik). Hori ez omen da bateraezina zentroen autonomia ospetsuarekin. Hitza eta botoa genituen aspaldi. Orain behartuta gure gure botoa ematera ezertarako balio ez duten kontuetan eta, askotan, botoa eman nahi ez dugunean ere. Boto kolegiatua omen da. Adibidez, ikastetxeak zein irakasgai eskaini behar dituen erabakitze orduan; erabaki hori lankide batzuentzat onuragarri izango da, baina beste batzuk izorratuko ditu. Klaustro-kide batek esaten badu, zilegitasun osoz, ez duela botorik eman nahi trantze horretan, ez duelako lankiderik kaltetu nahi, bilera ezin da amaitu abstentzioak ez direlako onartzen. Ez abstentziorik

ez kritikarik. Horrelakoa da eta horrela irentsi behar. Bozkatu eta isil zaitetz.

Oholtzak kendu genituen ikasgeletatik, hierarkia kutsurik ez egoteko ikasleen eta irakaslearen artean, baina klaustroak egiteko modua kontrako zentzuan aldatu dugu, iraganean biribilean esertzen ginen, aurpegiak ikusi eta elkarri hitz egin aldera; egun, aldiz, aulkiak ilaratan, denak pantailara begira, Power Point saihetzezina ikusi ahal izateko. Aginduak entzutea nahikoa ez balitz bezala, marrazkitxoak dituen pantaila batean jartzen dizkigute. Hor agertuko dira eztabaidatu ezin ditugun gauza horiek guztiak.

Egun, e-posta bat jaso dezakegu (gure laneko helbidean) autoak fabrikatzen dituen multinazional batek bidalita. Lotsarik gabe bidaltzen diete Hezkuntza Saileko arduradunei edo Berritzeguneei, eta hor norbaitek zentroetako zuzendaritzataldeei helarazten die, non segituan, irakasle guztiei birbidaltzen dieten. Autoak fabrikatzen dituen enpresaren prestakuntza-programa 10. edizioan dago. Zuzendaritza taldeko lankideek birbidaltako mezu elektronikoa *programaren* webgunerako esteka dago. Irakasle eta ikasleei zuzenean zuzentzen zataizkie: "Mundua hobetu nahi baduzu, onartu erronka eta eman izena".

Erronka zertan eta birziklapenaren eta kontsumo arduratsuen kultura sustatzean datza; elikadura- eta energia-pobrezia desagerraraztean; askotariko gaitasunak dituzten pertsonen gizarte- edo lan-inklusioko sustatzean; *gure* itsasoan kutsaduraren aurka borrokatzean; aniztasunaren errespetua sustatzean; genero-indarkeriari edo jazarpenari buruzko gizarte kontzientziatzean; klima-aldaketaren ondorioak murriztean; osasun mentaleko arazoak prebenitzean eta pertsonen egoera emozionala hobetzean; hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzean. Ez dut bat bera ere asmatu, zin dagizuet. Zera gaineratzen dute, gure ikasleei zuzenduta (zure seme-alabak, akaso): "Zure inguruan begiratu eta zure buruari galderak egiten hasten bazara, erronkak amaigabeak direla ikusiko duzu! Mundu hobe bat eraikitze mugitzen hasi behar dugu orain. Ez izan zalantzarik eta eman izena oraintxe bertan [gure ikastaroaren] 10. edizioan!".

Behinola ez zitzaigun horrelakorik iritsen, baina antzekorik iritsiz gero, klaustroan eztabaidatzeko aukera zegoen. Egia esan, ondo prestatu dute: orain inork ez du eztabaidatuko. Zergatik ez eman gure ikasleen izenak -zure seme-alabarenak- mundua hobetzeko erronkan, bada? ●

Ez ei dakite zergatik



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Hezkuntza Sailak ez ei du ulertzen publikoko langileak zergatik joan garen grebara. LAB sindikatuari galdetzea dauka. Sindikatu horrek akordioa sinatu zuen sailarekin, 2023ko apirilean. Urte bi geroago grebara deitu dute haiek ere, aurrekoetan ez bezala, Hezkuntza Sailak hitzartutakoa bete ez duelako.

Zehatzago esanda, hezkuntza publikorako hitzarturikoa ez du bete sailak. Joandako urte biotan ez bide dute guztiona denarentzat astirik izan.

Astia izan dute, baina, sare publikoari kalte egiten dion matrikulazio-dekretua idatzi eta onartzeko. Steilasi eta EHIGeri esker justiziak dekretua atzera bota duenean, astia izan dute beste dokumentu bat iragartzeko, matrikulazioan eskola publikoari kalte egiten jarraitzeko. Astia izan dute, eskola pribatuetako kontzertazioa gelako hamahiru ikaslara jaisteko ume gutxiago jaiotzen delako eta, aldi berean, ikastetxe publikoen derrigorrezko fusioak agintzeko... ume gutxiago jaiotzen delako. Astia izan dute, pribatuko irakasleen soldata publikoaren pare edo hortik gora ipintzeko; hau da, diru publikoarekin berdin ordaintzeko irizpide garden eta kontrolpekoekin kontratataturiko langile publikoak eta irizpide ideologiko eta kontrol bakoekin kontratataturiko eskola pribatuetako langileak. Astia izan dute, azkenik,

Hezkuntza Lege bat aprobatzeko, zeinean parean jartzen diren sare pribatu kuota-koa eta sare publikoa, nahiz eta LOMLOEK sare publikoa sustatzera behartzen dituen herri-agintariak: 109. artikuluko hirugarren puntuak "plaza publiko nahikoa ziurtatzera" behartzen ditu, eta 5. puntuak titulartasun publikoko ikastetxe-sarean plaza-hazkunde progresiboa" egitera.

Baina Hezkuntza Sailak ez ei daki zergatik joan garen grebara. Azaldu egin beharko diogu, bada, horixe delako irakasleok ondoen egiten dakiguna: galde-tzen digutenean, xehe azaldu.

Grebara goaz, saila sare publikoa baztertzen ari delako, berau den arren gizar-te-kohesioaren, laikotasunaren eta euskalduntzearen bermea. Grebara, ordezkartza sindikalarekin zintzo negoziatzeko asmorik ez duelako: eseri behingoz, zehaztu eztabaidaren edukia eta egutegia, hitzartu eskola publikoa eta bere langileak errespetatuko dituen ituna, eta jendaurrean iragarri akordioa betetzeko egutegia.

Grebara, horretarako arrazoiak ulertzen ez zituela esan zigun ume berean, sailak argi utzi zigulako negoziatio-mahaira eroan egin beharko dugula.

Greba egin genuen urtarrilean, sailari hilabete emateko, otsailaren 26ra arte, benetan laga gaitzan grebarako arrazoi barik. ●

Gutxiengoa



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Ez zuen egoki jokatu, neurriak hartu behar ziren, bestela, ez dugu ikasten. Itxuraz, ez zen ohartzen egindakoaren inpaktuaz, normal jarraitzen zuen, batzuetan, ingurukoek baino itxura zoriontsuagoz. Gainera, altuegi hitz egiten du, hori ez zaio inori gustatzen. Darabiltzan alkandoren moduan: bolumen piktorikoa topera; eta eskertuko zenukete botoi bat gehiago itxiko balu. Ez du fotokopiagailuan papera jartzen, eta ez da afarietara etortzen: horrela ez dago taldearen giroari eusterik. Agian, neurriak hartu behar dira, ondorioren bat eduki dezan; badakizu ez dagoela horrelakorik aurreikusita, baina zerbait egin behar da. Luze egoten da komunean, ez duzue bere bikotekidea ezagutzen (fa-

matua da, zergatik ez dizue aurkeztu), eta bezeroek zerbait oparitzen badiote, pastak edo bonboiak, etxera eramaten ditu, ez ditu atsedeen-bulegoan uzten. Normal sartzen da, eta kafea hartzen du, normal. Irribarre egiten du! Lotsagabea. Amorrua ematen dizu, gaur oihu egin diozu, denen aurrean, merezi zuen, inork ez du ezer esan, denak jarri dira nolabait zure atzean. Oihu egiteko arrazoiak ez du zerikusirik egin zuenarekin, zure zerarekin baizik, baina ez da kon-turatzen zenbat molestatzeko duen. Batek zakarrontzira bota dio molestatzeko zuen bere karpeta bat... Ea ikasten duen. Gehienetan ez zarete gogoratzen egin zuen horretaz. Batzuk ahaztuta daukate. Baina hori da gutxiengoa, jada. ●

Bide luzea pauso ttikitan!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Bidea pausoka egiten da, eta hasiak egina dirudiela ikasi nuen aspaldi xamar. Baina jendeak esaldi hori edukiz betetzen ere ikasi nahi du. Bakarririk ezer gutxi lor genezake, hasi orduko etsi, akaso. Sekulako jendetza biltzeak ere antolaketa zaildu eta ikusi beharrekoa gandutu dezake. Txikitik handira, herri txikietatik, bailaretatik, hirietara iritsi asmoz, ekin zaio Gipuzkoako Goierriin energia lortzeko elkarlanari Hitzar kooperatibaren bidez.

Aurrez, Biziola martxan jarrita zegoen auzolanaren bidetik. Denbora laburrean, egoitza edo orubea jabetzan hartzeko gai izan dira, bertako edo gertuko jakiak nekazariei erositara –hori bai, dagokion salneurrian–, eta bazkideei nahiz erosle orori salduta. Batzuk ulertzen dugu horrelako proiektuetan inon baino kalitate hobeko jakiak eta merkeenak erosiko ditugula. Kalitatea agian bai, baina merke-zurrean ezin da. Dagokiona ordainduta eramango ditugu barazkiak edo dena delakoak, bertakoak izateak ez baitu esan nahi opari emango digutenik, hemen gauzak kostata izaten direla ongi baitakigu. Oso ona eta oso

Geuk ez badugu ekimena hartzen, irabaziak pilatzen ari direnek sinetsaraziko digute indar nuklearra energia berdea dela eta erremediorik gabe behar dugula

merke aurkitzen badugu zerbait, seinale norbaiti lapurtu egin diotela edo ez diotela dagokiona ordaindu, eta askotan, kosta zaionik ere ez! Horrek ere egiten du proiektu hau ezberdin, ingurumena zainduz, lanpostuak sortuz, ordainsari duinak emanez eta bazkideen (herritar oro izan daiteke bazkide) iritzia betez hartutako erabakietan oinarritzen dela.

Adituek diotenez, klima aldaketa sekulakoa gertatzen ari omen, eta eman dituzten datuek hala baieztatzen digute. Leku dezentetan ari dira euriteak luiziak eragiten, eta urak bere bidea beti

aurkitzen duenez, gizakiok behar ez bezala eta behar ez zen tokian eraiki duguna aurrean hartu eta eramango du, lehentxeago edo geroxeago. Zerk eragin ote du klima aldaketa hori? Kutsadurak ekarri ote lurra gehiegi berotzea? Euria non eta noiz egin gizakion kontrolpean dagoela ere egia ote?

Ez dakigu, baina argi dago, zenbait agintari egin eta desegin ari direla, han gerra eta hemen patrikak bete. Geuk ez badugu ekimena hartzen, oso ezagunak zaizkigun “euska” aurretik jarri, eta irabaziak pilatzen ari direnek sinetsaraziko digute indar nuklearra energia berdea dela eta erremediorik gabe behar dugula, gainera! Eta Mercosur ezinbestekoa dugula gure oinarritzko beharrak asetzeko, eta kontuz, ez badugu hasitako bidean jarraitzen egia izango da, gainera. Dena besteek egiteaz ohitzen ari gara eta horrek izorratuko gaitu!

Neu bizi naizen eskualdea soilik aipatu dut, baina badakit Urola Kostan ere ari direla antzerako proiektuak gauzatzen eta, ziur baietz, beste eskualde batzuetan ere. Animo, eutsi goiari eta ez ahaztu: bide luzea, pauso ttikitan! ●



Napalmaren erredura sakonak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Vietnam, 1965eko otsailaren 7a. AEBetako aire-armadak lehenengo napalma erabili zuen biztanleria zibilaren kontra. Ez zen gasolina gelatinatsua erabiltzen zen lehen aldia. Bigarren Mundu Gerran hasi ziren bonbekin batera jaurtitzeko eta, Vietnamen bertan, Indotxinako Gerran erabilia zuten 1950eko urte amaieran, baita Koreako Gerran, Mendebaldeko Saharan, Nigerian, El Salvadorren...

Baina duela 60 urtekoa lehen eraso sistematikoa eta indiskriminatua izan zen. Eta ez zen azkena izango. 1972ko ekainaren 8an napalmez erasotu zuten Trảng Bàng herria. Phan Thị Kim Phúc bederatzi urteko neskatua errepidera joan zen ihesi, baina hegazkin bat hurbildu zitzaion eta, berehala, suak bere arropa guztia eta gorputzaren bi herenak erre zizkion. Nick Ut vietnamdar argazkilaria hantxe zegoen, eta argazki ikonikoa atera zion. Berehala, neskatua hartu eta ospitale-eraman zuen eta bere bizia salbatzen saia zitezen presioa egin zuen, Associated Press nazioarteko agentziako kide zela baliatuta. Hamalau hilabete eman zituen Kimek ospitalean eta hamazazpi ebakuntza egin zizkioten. Bizirik atera zen, baina oraindik jasaten dituen ondorio kroniko larriekin. Gerora, datu soil baina latza erabiliz deskribatu zuen bizitakoa: "Napalma imajinatu daitekeen oinazetik izugarriena da... Urak 100 gradutan irakiten du eta napalmak 800 eta 1.200 gradutako



NICK UT. ASSOCIATED PRESS

temperaturak eragiten ditu". Gainera, gasolina baino denbora gehiago behar du erretzeko, errazago hedatzen da eta helburuetara hobeto itsasten da.

Nick Uten argazkiak, besteak beste, Pulitzer saria jaso zuen, mundu osoan hedatu zen eta iritzi publikoan eragin sakona izan zuen. *New York Times* egunkariaren arabera: "AEBetan hazten ari zen sentimendu antibelikoak elikatu zuen eta, agian, Vietnamgo Gerraren amaiera bizkortu zuen".


Arma su-eragilearen krudelkeria Nazio Batuen Erakundera (NBE) ere iritsi zen. 1980an NBEren Zenbait

Arma Konbentzionalei buruzko Hitzarmenak (CCW) napalmaren erabilera debekatu zuen. Baina, batetik, CCWn parte hartzeko herrialdeek ez dute zertan bat egin hitzarmenaren protokolo guztiekin –nahikoa dute bost protokolotatik bi onartzearekin– eta horrek esan nahi du NBEko kide askok ez dutela napalmaren kontrako debekua errespetatzen. Eta, bestetik, debekua helburu zibilei soilik eragiten die. Hau da, helburu militarren aurka erabil daiteke. Eta ederki dakigu, komeni zaienean, "helburu militar" kontzeptua zein malgua izan daitekeen. ●

Vasagårdeko eguzki-harriak

Danimarkako Vasagård aztarnategian 600dik gora harri grabatu aurkitu dituzte arkeologoek. Datazioen emaitzen arabera, duela 4.900 urtekoak dira, eta garai hartan Alaskan sumendi baten erupzio bortitza gertatu zela ere jakina da. Erupzio horren ondorioek Europa iparraldeko komunitate neolitikoetan kalte handiak eragin zituen, nahiz eta

haiak ez zekiten zein zen bat-bateko klima-aldaketaren arrazoia. Arkeologoek *Antiquity* aldizkarian jakinarazi dutenez, erupzioa eta harriak lotuta leudeke; eguzki itxurako grabatuak dituzten pieza horiek ofrenda moduan ehortzi zituzten beste objektu batzuekin batera, uzta onak eskatzeko eta erupzioak eragindako zorigaitzak uxatzeko. ●



JUDIMENDI

A ereduko ikastetxe estigmatizatua D ereduko auzo-eskola bilakatzen

Eskola segregatua izan da Gasteizko Judimendi ikastetxe publikoa, hiri guztiko ikasleak hartu ditu, jatorri atzerritarreko familien seme-alabak. Baina A hizkuntza eredutik D eredura igarotzeaz gain, auzoak eskola bere sentitzeko eta auzoko familiak erakartzeko egindako prozesuari esker, panoramari buelta ematea lortzen ari dira: ikasturte honetan matrikulatu diren haur berriak auzokoak dira, kasik erdiak euskara du etxeko hizkuntza eta gainerako umeak jatorri atzerritarreko familiatakoak dira. Sekretua kontatzeko eskatu diegu.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

 DANI BLANCO / ARGIA - CC BY SA

Hirigunetik gertu dagoen auzoa da Judimendi, eta auzoaren erdian kokatzen da eskola. Duela gutxi berri eta berdetutako patioa erakutsi digute lehenik, eskola aurrean dagoen parke ederra aprobetxatzen dutela ere kontatu digute, ikasleak kanpora ateratzen direla txandaka. 30 bat ikasle dituzte Haur Hezkuntzan, eta 119 Lehen Hezkuntzan. Ikasgelaz ikasgela eraman gaituzte, batzuk eta besteak agurtzera, denek ezagutzen dutelako elkar, eta segituan arnastu dugu bai gurasoek bai irakasleek errepikatu digutena: eskola txikia da, etxekoa eta familiarra, elkarbizitza eta giro atsegina errazten dituena. Aurreiritzi orokortua da hain aniztasun handiko eskolak gatazkatsuak direla, baina uste horretatik oso urrun dago

“Eskola batzuetan hizkuntza eredu aldatu dute eta gainerako guztia berdin gelditu da. Guk iparra garbi genuen: auzoko eskola izateko, auzoko familiak erakarri behar genituen, eta lo zegoen eskola esnarazi behar genuen”







Mario Caminos eta Karina Villalobos, Judimendiko gurasoak. Alboko argazkian, Aitor Idigoras, Olarizu Lopez de Briñas, Amaia Zudaire eta Rakel Pangua eskolako profesionalak: "Elkartu gara irakasle oso konprometitua, ilusioz eta gogoz ari garenak, eta horri esker atera dugu prozesu hau aurrera".

Judimendiko errealitatea, eta gatazkak suertatzen direnean, esku-hartzea arintzen du txiki izateak, guztiek elkar ongi ezagutzeak –baita bakoitzaren egoera eta ekar lezakeen motxila ere– eta ikasle, irakasle eta familien arteko lotura afektiboek. Esanguratsua da: gero eta irakasle gehiagok eskatzen du Judimendin lan egin ahal izatea.

Lehen aldiz, guraso euskaldunak dituzten umeak doaz Judimendi eskolara. Ikasturte honetan, 2 urteko gela D ereduaz zabaldu dute eta urtez urte mailaz maila ordezkatuko du D ereduak A eredu, ikastetxe guztia D eredu bilakatu arte –alegia, ikasturte honetan 2 urteko gelan daudenak Lehen Hezkuntzako azken mailara iristen direnean, eskola guztia izango da D eredu–. 2 urteko gela horretan 18 ume daude, horietatik zortzi ikasle euskara dute etxeko hizkuntza, beste hamarrak jatorri atzerriarreko familien seme-alabak dira. Guraso euskalduna da Mario Caminos, eta haren 2 urteko semea Judimendin hasi da aurtan. Orain arte A ereduko ikastetxe izandakoan izena emateko beldur eta kezkarik al zuten galdetu diogu: "Semea eskolara pozik ez etortzea, lagunik ez egitea, hori izan da gure kezka. Gainerakoan, logikoa iruditu zaigu umea auzoko eskolara ekartzea, eta auzoko errealitatea islatzen du ikastetxeak, semeak auzoan ikusten duena ikusiko du eskolan ere, ez du zentzurik urrutiko eskola batera bidaltzeak, gero kalean ikusiko duenarekin zerikusirik ez duena. Gainera, polita iruditzen zitzaigun eskolara oinez edo bizikletan etorri ahal izatea, eta

eskola-orduen ostean bokadilloa jaten eta jolasten patioan bertan edo inguruan denboratxo bat jarraitu ahal izatea".

Orain arte, Judimendiko guraso euskaldunek beste auzo batzuetako ikastetxetara bidali dituzte seme-alabak, euskarazko murgiltze ereduaren bila, eta alderantziz, beste auzo batzuetako familiak gerturatu izan dira Judimendira, A ereduaren bila. Hori aldatzen ari da, tartean guraso euskaldun talde bategi apustu egin duelako ikastetxearen alde. Militantzia? "Bikotekideak eta biok behintzat ez dugu inor konbentzitzeko egin, gure semearentzat onena izango dela sinetsita baizik, eta horregatik nahi dugu, besteak beste, guraso elkarrekin indarberritu", kontatu du Caminok. Urratsa eman aurretik, guraso batzuek kezka azaleratu zituztela aipatu du,

2 urteko ikasgelan, batzuek etxeko hizkuntza euskara dutenez eta beste batzuek ez euskara ez gaztelania, haurrek euskara dute topagune, eta elkarren arteko harremanean ez dute gaztelania makulutzat

adibidez matrikula biziari lotuta –ikas-turtean zehar joan eta etortzen diren ikasleak– eta, batez ere, hizkuntzari eta hizkuntzaren kudeaketari lotuta. Eskolako profesionalak hizkuntza proiektu berria argitu zieten –aurrerago azalduko dugu–, eta gainera, gauza bitxia gertatu dela kontatu digu Caminok: 2 urteko ikasgelan, batzuek etxeko hizkuntza euskara dutenez eta beste batzuek ez euskara ez gaztelania (baizik urdua, arabiarra, georgiarra...), haurrek euskara dute topagune, eta elkarren arteko harremanean ez dute gaztelania makulutzat, ez delako ez batzuen ez besteen etxeko hizkuntza.

Euskaldunak ez diren auzoko familien kasuan, zein izan dira beldurrak, D ereduko ikastetxean seme-alabak matrikulatzeko? Kezka errepikatua izan ohi da seme-alabei ezingo dietela lagundu eskolako lanekin, ez dakitelako euskaraz, "askori hala gertatu zitzaion pandemia garaian hainbat ikastetxetan", adierazi digu Karina Villalobos Judimendiko guraso elkarterako presidentea. Dena den, azalduz gero, erraz asko ulertzen dute beren seme-alaben onerako dela, eta aurtan 2 urteko gelan haurra matrikulatu duten guraso erdaldunek kontzienteki egin dute, "nire seme-alabak euskara ikasiko du" ulertuta. Arazoa beste bat da, Venezuelatik Gasteizera duela bost urte iritsi zen Karina Villalobosek dienez: "Atzeritik gatozenez, ez digute azaltzen zein garrantzitsua den euskara, beraz ez dugu hala barneratzen, eta horregatik errazena iruditzen zaigu A ereduaz sartzea haurrak;



2 urteko gela berria 18 ume daude, horietatik 8 ikasle euskara dute etxeko hizkuntza, beste 10ak jatorri atzerritarreko familien seme-alabak dira.

gerora ohartzen gara. Adibidez, alabak Judimendin matrikulatu eta handik urte pare batera guraso elkartearen sartu nintzelarik, nahikoa shock izan zen kontratzea alabek zuten euskara maila ez zela espero zitekeena. Urteotan ikusi dut guraso askok egiten duela seme-alaba nagusia A ereduan utzi eta txikiena zuzenean D ereduan matrikulatu”.

GURASOAK, ELKARREN AKUILU

Guraso gisa, eraldatzea helburu duen eskolaren aldeko apustua bakarrik edo taldean egitea ez da gauza bera, taldeak babesa, segurtasuna eta indarra ematen dizu. Horregatik, Errotzen programa gako izan da prozesu honetan. Laz martxan jarri zuten Errotzen, eta aurten ere errepikatu dute, arrakasta ikusita: auzoko 0-2 urteko umeentzako eta haien familientzako gimnasioa eskaintzen du arratsaldean Judimendi eskolak. Joan den urtean, bertan elkartzen ziren fa-

Auzoko 0-2 urteko umeentzako eta haien familientzako gimnasioa eskaintzen du arratsaldean Judimendi eskolak. Laz, hor saretutako harremanetatik osatu zen gela. “Jauzia batera emateak animatu gintuen; zergatik sakabanatu, eskola bertan izanik?”

miliak eman zuten gero pausoa 2 urteko gelan izena emateko, hor saretutako harremanetatik osatu zen gela, eta familiak elkartzeko, harremanak egiteko, zalantzak eta asmoak partekatzeko espazio bilakatu zen. “Jauzia batera emateak animatu gintuen; azken finean, zergatik sakabanatuko gara beste auzo eta ikastetxe batzuetara, eskola bertan izanik?”, kontatu du Caminok. Semea eskolan pozik dagoela ikusten dute, eta asko baloratzen dute “atezainetik hasi eta zuzendariraino, denek nire semearen izena jakitea, baita urteak bete berri dituela ere! Lerro mordoia dituzten ikastetxeetan ezinezkoa da hori”.

NOLAKOA IZAN DA PROZESUA?

Duela hiruzpalau urteko zuzendaritza aldaketak ekarri ditu egungo haize berriak. “Ez genuen soilik hizkia aldatu nahi, A-tik D-ra aldatu eta kito, zeren eskola batzuetan hizkuntza eredu aldatu

dute eta gainerako guztia berdin gelditu da, baita ikasleen profila ere, ez da al-daketa erreala izan, eta guk iparra oso garbi genuen: auzoko eskola izateko, auzoko familiak erakarri behar genituen, eta lo zegoen eskola esnarazi behar genuen”. Halaxe kontatu digute gurekin bildu diren Judimendiko profesionalak: Amaia Zudaire zuzendaria, Rakel Pangua ikasketa burua, eta Olarizu Lopez de Briñas eta Aitor Idigoras irakasleak.

Obra handiak egin dira ikastetxean, patioa adibidez berritu eta berdetu egin dute, metodologikoki material asko aldatu dute, diziplinarteko proiektuak ari dira, Haur Hezkuntzan mugimendu autonomoan, etapa batetik besterako zubiak eraikitzen... eta auzora zabalik, nola bestela, Judimendiko elkarte, batzorde eta ekintzetan hartzen dute parte.

Duela urteak antzeko prozesua eta apustua egin zuen Gasteizko Alde Zaharreko Ramon Bajo ikastetxe publikora jo zuten, laguntza eta aholku bila. “Animo pila bat transmititu ziguten, eta eurei esker jabetu ginen urrats ugari jada emanak genituela: auzoko elkarrekin harremana bagenuela, eskolako espazioak birmoldatuak genituela, eskola txikia ginela eta hori balio handia dela... Eta garbi utzi ziguten: zaindu asko bertarantzen direnak, eskola irekia izan dadin; zaindu harrera, zaindu elkarbizitza”.

Lehen aipatu dugun Errotzen programa ere Ramon Bajok duen programaren erreplika da. “Gure auzoan ditugu familia eskaldunak, arabiarrek, andaluziarrak... eta aniztasun horren isla izan nahi du eskolak. Gero elkarbizitza hori auzora zabaltzen da, edo auzotik eskolara, eta elkarrekin egiten dute bidea umeek. Hezkuntzaren eta ikaslearen arrakastaren gako asko saretze eta harreman horietan bilatu behar ditugu. Zein inportantea sare horiek elikatzea”, azpimarratu digute irakasleek.

Nola inplantatu D eredu halako prozesuetan? Nola landu D eredu, euskararekin batere harremanik izan ez duten ikasleekin? Nola kudeatu hizkuntzaren gaia, bi eredu dituen eskolan? Formazioa jaso dute Ramon Bajoko guraso izan zen Amelia Barquínen eskutik eta laguntza izan dute Berritzeguneko Ulibarri programakoen aldetik, besteak beste. Seme-alaba D eredu 2 urteko gelan matrikulatu duen hainbat gurasok ere jakin nahi zuen, nola kudeatuko zituzten espazioak eta hizkuntzak eskolan, gelaz kanpo. “Garbi utzi genien murgiltze eredu sartu den talde berria ez dela

“Eskolaren auzotzea halako des-segregazio bat ekartzen ari da, eta gure ustez, hori da bidea: auzoan auzokoa. Auzo pobretuetan ere, latzagoa da hainbat ikastetxeren egoera, ez dira auzoaren isla”

burbuila batean egongo, eskola baten barruan daude, beste ikasle asko daude, eta ikasi behar dugu elkarbizitza hori bideratzen, denon artean. Adostu dugun hizkuntza proiektuak asko lagundu digu bide horretan”. Esaterako, A eredu eskola izan arren, euskarak presentzia du Judimendi ikastetxean, bai espazio partekatuetan, bai elkarbanatzen dituzten festa eta ekintzetan... eta pixkanaka kontzienteki areagotzen ari dira presentzia hori A eredu ikasleekin, batik bat ahozkotasanari eta ulermenari lotuta. Ikasle-irakasleen eguneroko hartu-emanen, adibidez komunera joan nahi duela eskatzeko, korridoreko solasaldietan, patioan... euskara lehenesten dute. Erabaki dute, gainera, A eredu ikasgai batzuk euskaraz egitea (Gorputz Heziketa, Plastika, Euskara ikasgaia ere badute...) eta zentroko material eta dokumentazio guztia euskaraz biltzen ari dira, apurka dena aldatzen. “Hasieran denoi egin zaigu bitxia, orain arte elkarren artean gaztelaniaz aritzetik euskara aldatzea, baina ohitzen ari gara, eta A eredu ikasleengan eragina nabaria izaten ari da, euskaraz hitz solteak eta espresioak erabiltzen hasiak dira, orain arte pentsaezina zena, besteak beste guri geuri ere euskaraz entzuten digute-lako orain, 2 urteko umeekin harremana euskaraz dutelako...”.

Euskararekiko jarrerari lotuta, galde-egia pasa diete berriki ikasleei. “Gustatuko litzaizuke irakasleak zuri euskaraz galdetzea?” itaunari ezezkoa erantzun zion gehiengoak –ez baitakite euskaraz–, baina hara non, “gustatuko litzaizuke euskara gehiago jakitea?” galderari gehiengoak baietz erantzun dion: A eredu Judimendiko haur eta gazteen %80ak euskara gehiago jakin nahi du. “Erronka izango da proiektuak gorputza

hartu ahala eta eskolako gero eta maila gehiago D eredu izan ahala, elkarbizitza hori hizkuntza ikuspegitik kudeatzea”, aipatu dute irakasleek.

D eredu gelan zentratuta, lehen esan dugu ikasleen profilak egoera berezia utzi duela: elkartzen dituen hizkuntza euskara da eta euskarara jotzen dute elkarren artean aritzeko, espainola bazter utzita.

ESKOLA “DES-SEGREGATZEN”

Eskola segregatu eta estigmatizatuari buelta ematen hasiak dira Judimendin, eta pozik daude. “Eskolaren auzotzea halako des-segregazio bat ekartzen ari da, eta gure ustez, hori da bidea: auzoan auzokoa. Gasteizen ez dago auzo segregaturik; badira auzo aberatsagoak eta pobretuagoak, desoreka hori badago, ageri denez, baina nahiko lukete Gasteizko auzo pobretuago horietako ikastetxeek izan auzoaren isla! Esaterako, Zaramagako eskolak guztiz segregatuta daude, baina Zaramagako errealitatea ez da hain latza; berdin erdialdeko eskolatan”.

Dena den, garbi utzi nahi dute: Eusko Jaurlaritzaren ardura da segregazioari aurre egitea, “eta ez dira egiten ari”. Hain justu, Hezkuntza Sailarekin hartu-emanen harrapatu ditugu, bisita egin diegun egunean, urtarrilean. Ikasturtea behin abiatuta, ikasleen joan-etorri handia izan dute, oraindik A eredu diren getetan. “Gehieneko muga batzuk daude, baina Hezkuntzak ez ditu errespetatzen eta ikasleak etorri bai, baina baliabide pertsonal eta materialik ez dugu jasotzen, eta iritsi berriek ere sarri beren motxila dakarte, akademikoa, emozionala, hizkuntzari lotua...”. Irakasleek salatu dute ez dutela Hezkuntza Sailaren laguntzarik, ez plazak perfilatzeko, ez Haur Hezkuntzan plaza batzuk finkatzeko, ez ikasturtean zehar iritsitako ikasleei erantzuteko... “Elkartu gara irakasle oso konprometituek, ilusioz eta gogoz ari garenak, eta horri esker atera dugu prozesu hau aurrera, baina halako prozesuek ezin dute geratu edo ez lukete geratu behar eskola bateko profesionalen borondatearen menpe”.

AUZO BIZIA

Gasteiz barruan, nortasun handiko auzoa da Judimendi, aktiboa eta borrokalaria, elkarte eta mugimendu asko dituen. Luxua da eskolarentzat halako auzoa izatea. “Bai, eta auzoarentzat ere luxua da gurea bezalako eskola bertan izatea, txikia, hurbila, erdigunean, hain ongi



lotua auzoaren espirituari”, erantzun digute solaskideek. Urte askoan auzoa eta eskola elkarri bizkarra emanda egon dira, eta egoera horri buelta ematen ari dira. “Auzoko eragile guztiak oso pozik jarri ziren, prozesua iragarri genuenean. Babes handia sentitzen dugu eta gu ere beti prest gaude eskatzen diguten ekin-tza eta enbaxadetan parte hartzeko”.

Anekdota bat kontatu digute: eskola-ren ate irekiak egin zituztenean, gizon nagusi bat etorri zen, eta azaldu zien ez zela inor matrikulatzeko asmoz joan, baina auzokoa dela eta eskolaren berri

izan nahi zuela, orain arte ikusezina izan zelako beretzat. “Interesa badago, auzoko jendea eskolarekin konektatzeko, eta ekintza eta proiektu ugari egin daitezke horren bueltan”.

Mario Caminosek eta Karina Villalobosek argi dute zer eskatzen dioten eskolari: seme-alabak pozik joan daitezela eta txiki eta familiar izatearen abantaila guztiak disfrutatu ditzatela: “Gutxi izango dira lerro bakarreko ikastetxeak hemen Gasteizen, gozatu dezatela!”. Gainera, irakasleek ziurtatu dute txikitak hori defendatzen segituko dutela,

ez dutela lerro gehiago irekitzeko edota makro-zentro bihurtzeko inongo asmo-rik. Eta azken ohar bat ere egin digu Aitor Idigoras irakasleak, hurbiltasunari eta elkarbizitzari garrantzia ematea oso ongi baitago, “baina aldarrikatu behar dugu akademikoki ere lan ona egiten dugula Judimendin eta ondo prestatzen ditugula ikasleak, zeren A ereduko ikaslerik zaurgarrienen artean ohiko dira espektatiba bajuak, eta barneratu behar dute etorkizunean karrera bat edo dena-delakoa egin dezaketela, hala nahi izanez gero”. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2025

KUADRILLAKO BERTSO EGUNAK

14 ekimen, Arabako eskualde denetan

URTARRILAK 22 - APIRILAK 5

4 FINALERDI ETA FINALA

14 talde, 76 bertsolari,
17 epaile, 21 gai-jartzaile,
eta beste 11 laguntzaile

www.bertsozale.eus/araba

araba-álava
EUS
KARREAL
Vital
ARGIA

Alternatibei zirrikitua irekitzeagatik

Zerbait egin beharra izan liteke aurtengo Argia Sarietan garaikurra jaso berri dutenen oinarria. Zapalkuntzaren, bazterkeriaren, ahanzturaren aurrean antolatzearen erabakia hartu izana. Edo ilunetik argia ateratzea, zirrikituak bilatzea eta komunitateari eskaintzea. Balio dezatela sari hauek proiektu eta lan hauei ikusgarritasuna emateko, egin duten eta egiten duten lana ez baita makala. Balio dezatela sari hauek proiektu eta lan hauei merezi duten aitortza egiteko.

Usurbilgo Atxega Jauregian, urtarrilaren 31n, banatu dira Argia Sariak. Antton Mendizabal eskultore donostiarrak 35 urtez garaikurrak ondu eta gero, aurten egin ditu azkenak.



 **ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**  **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Arrazoiak asko, 2025eko Argia Sariak merezi izateko: kultura komertzialetik harago eta gurera ekarrita, euskal kulturari ertzak atera eta hausnarketara eramateagatik; kultur arloan Euskal Herrian dugun dibertsitatea eta emankortasuna telebista publikora ekartzeagatik; 1936ko gerran eta gerra ostean errepresaliatutakoei eta beren ahaideei duintasuna eta egia ekartzeagatik; eskuin muturraren gorakadaren aurrean ezkerreko kazetaritza eginez informatzeagatik; euskara

haur nafar guztien etxeetara sartzeagatik; eta gure haur eta nerabeei burua altxatzen laguntzeagatik.

IKUS-ENTZUNEZKOA: EITB KULTURA

Euskal kulturgileen lana bistaratzegatik eta Euskal Herriko txoko guztietako proiektuak telebista publikora ekartzeagatik jaso du aurtengo Argia Saria ia hogeituro urteko ibilbidea duen EITB Kultura programak. Hasiara batean, zortzi langile autonomok sortutako saioak ziren, EITBk kontratatu-

ta; telebista bera aritu zen hiruzpalau urtez produkzio lanetan gero, eta berderatzigarren denboraldiari ekin dio orain Berde produkzioak ekoiztetxeak. "1.000tik gora sortzaileri egin diogu elkarrizketa azkeneko hamarkada honetan", adierazi du Leire Ikaran saioaren erredaktoreetako batek. Urte hauetan euskal sortzaileen panorama aldatu ote den galdetuta, zera erantzun du: "Euskal kultur sortzaileen artean badira mitikoak, asko jarraitzen ditugunak, baina aldi berean, irudipena dugu azken urteetan proiektu, areto eta kon-



Goian, ezkerretik eskuinera: Josemi Gastón, Cesar Layana, Asier Kortabarria, Maite Goñi, Xalba Ramirez, Ainhoa Etxebeste, Aizpea Aizpurua, Andrea Bosch, Beñat Parra, Izaskun de Miguel, Miren Ros eta Fermin Sarasa.

Behean, ezkerretik eskuinera: Amets Aranguren, Jose Luis Barredo, Gorka Garcia, Leire Ikarán, Jesus Irujo, Nerea Urbizu eta Beñat Gaztelurrutia.

painia txiki eta usu autogestionatuak ugaritu direla, edo gu behintzat, gehiago heltzen garelara beraiengana”.

“Euskaraz artea eta kultura sortzen duen unibertso txiki bat badago, nahiz eta lehen bezala orain ere prekarioa izan eta zailtasunak eduki beren jarduna aurrera ateratzeko”, azaldu du. Narratiboki eta irudi aldetik “zerbait kreatiboa eta zaindua” egiten ahalegintzen dira eta kultur munduan dabilenak edo maite duenak gustuz jasotzen du emaitza. “Foko handietatik kanpo geratzen direnei eman nahi izaten die-

gu lekua, euskara eta lurraldetasuna zainduz”, azpimarratu du.

PRENTSA: IRUTXULOKO HITZA

Eskuin muturraren gorakada ez da, dagoeneko, anekdotikoa, eta hango eta hemengo hedabide kontserbadoreen eskutik diskurtso horiek gure gizartean normalizatzen ari dira, tantakantaka segurtasun ezarekin edo delinkuentzia txikiarekin lotuta egunero jasotzen ditugun albisteen laguntzarekin. Baina nola egin aurre jarrera horiei, arrazakeriari, kazetaritzatik?

“Giza eskubideen aurkako jarrerak ez dira zilegi eta egia kontatzea da gure lana. Gure ardurra da sarri hedabide handi batzuetan kontatu gabe geratzen den beste Donostia horren berri ematea, Donostia feminista, antirrazista... hori”, azaldu digu Beñat Parra *Irutxuloko Hitza*-ko zuzendariak.

“Kaleko Afari Solidarioak eta kale egoeran dauden gazte migratzaileak besterik gabe delinkuentziarekin lotzea ez dut uste zuzena denik eta horrek ondorioak ditu. Kazetaritzak erantzukizun handia du gizartean eta

gu ahalegintzen gara arazoari ikuspegi globalagoa ematen, beti ere tokikotik; eta konponbide integralak planteatzen dituztenei, auzo elkarteei, eta abar, ahotsa ematen”, gehitu du.

Hogei urte betetzen ditu aurten *Irutxuloko Hitza*-k eta saria “ilusio handiarekin” jaso dutela aitortu digu Parrak. “Ez dugu lan egiten sari bat jasotzeko, noski, baina izugarritzko aitortza da”.

ENTZUNEZKOA: BADA!BIL PODCASTA

Abiadura bizian doan gizarte honetan makinak gelditzeko proposamena luzatu digu Hiru Damatxok ekoiztutako podcast honek. Gerediaga elkartearen eta EITBren hitzarmena du oinarrian bigarren denboraldia ondu duen saioak, Durangoko Azokaren babesean. Euskal kultura ez dago salbuetsita merkatuaren logika eta abiaduratik eta BaDA!-bil saio bakoitzak balazta zapaldu eta hausnarketara, hizketara, entzutera garamatza. Euskal kulturagintzako eragile eta sortzaileak bildu ditu mahaia- ren bueltan Amets Aranguren, eta bidaiatu dugu kultur transmisioaren, adimen artifizialak dakartzen egoeren, prekaritatearen eta abarren inguruko eztabaidetan barrena.

“Azokak bere baitan biltzen ditu salmenta eta *mainstream*-a, baina kultura hortik harago doan zerbait bezala ulertzen dugu eta Amets Aranguren trebezia eta inplikazio handiz bideratu ditu gaiak promozio logiketatik aterata”, azaldu digu Lander Arretxea Hiru Damatxoko kideak.

2023ko Durangoko Azokaren atarian egin zituzten lehen mahai-inguruak eta orduko hartan sortzaile gazteei eman nahi izan zitzaizkien hitza. “Bigarren denboraldi honetan belaunaldi bat baino gehiago bildu eta nahastu nahi izan ditugu elkarrekin euskal kulturaren panoramaz azalean geratu gabe eta patxadaz hitz egin ahal izateko”, azaldu du Arretxeak.

Kulturzaleon gozamenerako pilulok dastatzeko: www.eitb.eus/eitbpodcast/jakintza/kultura/badabil

INTERNET: OROIBIDEA

Frankismoak 36ko gerrako galtzaileak zigortu, desagerrarazi edo, besterik gabe, ahaztu egin nahi izan zituen. Baina ez zuen lortu. Nafarroan aitzindari izan dira oroimen historikoa berreskuratzeke lanetan: fusilatutakoak lurpetik ateratzen lehenak izan ziren senideak,



EITB Kultura, ikus-entzunezko saria: Gorka García, Jose Luis Barredo, Leire Ikarán, Kerman Díaz eta Iera Uriona.



Irutxuloko Hitza, prentsako saria: Xalba Ramirez, Andrea Bosch, Aizpea Aizpurua eta Beñat Parra.



BaDA!bil podcasta, entzunezko saria: Ainhoa Etxebeste, Asier Kortabarria, Beñat Gaztelurrutia, Maite Goñi eta Amets Aranguren.



Oroibidea bilatzailea, Interneko saria: Josemi Gastón eta Cesar Layana.



Altza Burua ekimena, kanpaina onenaren saria: Miren Ros eta Izaskun de Miguel.



Ene Kantak, merezimenduzko saria: Jesus Irujo, Nerea Urbizu eta Fermin Sarasa.

herriz herri bildu ziren kolektiboki bik-timen datuak... Orain pauso garrantzitsuua eman dute Oroibidea webgunea osatuta. Dokumentuak, izenak, mapak, ahozko testigantzak, argazkiak eta beste hainbat material aurki daitezke klik bakarrean. Informazioa herritar ororen eskura modu errazean jartzea lortu dute.

“Modu sinplea topatu behar genuen, denentzat funtzionala izan zedin; erre-presaliatuen inguruko informazioa bilatzea ez baita askotan erraza. Baina lortu dugu eta 23.000 pertsona ingururen datu-basea sortu dugu, gelditu gabe handitzen eta osatzen ari dena”, azaldu digu Cesar Layana Nafarroako Memoriaren Institutuko dokumentazio saileko buruak. Nafarroako ikastetxe batzuetan oroimen historikoaren inguruko eskola-proiektuetan hasiak dira www.oroibidea.es tresna modura erabiltzen eta tokiko proiektuetarako ere “baliagarria” izan litekeela iritzi dio Layanak.

“Gure helburua da memoriaren ondarea babestu eta zabaltzea, baita erreparazioa ere. Bide horretan, frankismoaren biktima asko justiziarik eta egirik gabe geratu dira eta guk, behintzat, ordain publiko bat izan dezaten lan egiten dugu”, gehitu du.

KANPAINA: ALTXA BURUA

Ikusi dut nire begiekin laguna mugikorrarekin hizketan, Google-ri galdezka, zenbat urte dituen aktore batek; alboko lagun-taldea sumatu dut Adimen Artifizialarekin jolasean, gaur falta den kideari abesti bat sortzen; haur eta nerabeak eskolako musikako lanak ordenagailuetan egiten, ia musikaririk ere entzun gabe; nik ere proba egin dut ChatGPTk nola sortzen duen artikulua bat. Eta teknologiaren zurrunbiloan, ahots kritikoak hasi dira altxatzen, kasu honetan bereziki haur eta nerabeengan dituen ondorio kaltegarriengatik.

“Seme-alabei mugikorra emateko adina atzeratzeko guraso batzuen arteko ahozko hitzarmenetan du jatorria Altza Burua mugimenduak, Zarautz, Usurbil, Zumaia, Tolosa... izan ziren aitzindariak. 2019az ari naiz, eta gaur egun 80 talde inguru izango gara Gipuzkoan”, hasi da Patxi Montero, Altza Burua mugimenduko kidea. “2023ko azaroan saretu egin ginen eta ordutik trebatzen, formatzen eta sentsibilizatzen ari gara hainbat kanpaina eta proiekturen bitartez”, jarraitu du.

Zaila da egoera, bitartean ikastetxeak eta etxeak pantailaz betetzen jarraitzen baitugu. Zer egin? “Hasteko, helduko izan behar dugu eredu eta pantailen geure erabilera haur eta nerabeei eskatzen diegun neurrietara ekarri behar dugu; eta bigarrenik, gai honekin kezkatuta dabilenari esango nioke konpartitzeko kezka, hortik hasi baikara besteok ere, behetik gora, kezka kolektibizatuz ohar-tuko baita ez dela berea bakarrik kezka hori eta badela jendea eskoletako digitalizazioa birpentsatu nahi duena, deskonexio digitalaren garrantziaz jabetzen dena, sare sozialek eta beste aplikazio ugari sortzen duten menpekotasunarekin arduratuta dagoena...”.

MEREZIMENDUZKOA: ENE KANTAK

Duela hamabost urte modu xumean hasi zena fenomeno bilakatu da eta Nafarroako haurren etxeetara euskara heltzeko egindako lan honek dagoeneko, lurralde mugak aspaldi gaindituta, 100 milioitik gora ikustaldi ditu Youtube plataforman. “Orain dela hamabost urte haurrentzat euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza urria zen eta Nafarroan, konkretu-



ki, bazegoen euskara mehatxu modura jasotzeko jarrera nahiko orokortua ere. Hori irauli nahian hasi ginen”, kontatu digu Nerea Urbizu taldekideak. “Gaur egun, nahiz eta egoera ez izan amestutakoa, errealitatea pixka bat aldatu da eta hor dago gure aletxoia ere”, esan du.

Kirolariak edo musikaz besteko arloetan ezagunak direnak jarri dituzte kantuan, baita euskaldunak ez diren abeslariak ere; eta hortik hasita, Txantreako

erraldoietaraino. “Sari honek hemendik aurrera sortuko diren proiektuetarako indarra ematen digu eta ilusioz jaso dugu. Sareek indar handia hartu dute azken urte gutxitan eta arriskua handia da euskara bezalako hizkuntza txikien-tzat, hizkuntza handietan sortzen den eduki mordoia gure haurrek klik batera baitaukate eta lan handia egin beharko baitugu euskarari garrantzia emango dion komunitate bat eratzeko”. ●



Ohitura den bezala, talde argazkia atera zuen Dani Blanco ARGIAko argazkilariak, Atxega Jauregiaren aurrean. Ehun lagun inguru bildu ziren bazkaritara eta sari banaketara.

Galga azkartasunari

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Gauzak bizi eta azkar aldatzen badira ere, zenbait kontu ez dira aldatzen: Argia Sarien ekitaldia da horietako bat. Horixe esan dio kronikagile honi beharrera etorri den kanpoko kazetari batek, ARGIA asko aldatu dela esatearekin batera, sari-banaketa hasi aurretik. Onerako ari zen, inork tonalitatean zalantzarik egin bazuen.

Zer pentsatua ematen du horrek. Gauzak bizkor aldatzen diren munduan,

sare sozialek betetzen dute funtzio hori: jendeari sentrazioa ematea munduak azkar egiten duela bira eta ezin jarraituan gabiltza, hamsterrak bagina bezala. Lehen ere berdin egingo zuen bira, mundua analogikoa zenean, baina sentrazioa areagotu da, ez da dudarik. Berriki, enperadore sentitzen den kasik 80 urteko ugazabari, Donald Trumpi, amen-amen egin diote sare sozialen eta teknologiaren munduan agintean dau-

denek, eta ARGIAk, sari-banaketa ekitaldiko diskurtsoan, jakinarazi du sare sozial toxikoetatik alde egitea. Zergatik, eta txikitasunetik jarduteko, herrigintzan eragiteko. Soseguz.

Argia Sarien eguna bada egun patxadatsu bat, batzuen estresak estres. Elkargune dotorea da euskalgintzarentzat eta herrigintzarentzat, bertan elkartzen direlako, bazkariaren bueltan, memoria historikoaren alde borrokan dabil-tzan nafarrak eta lapurtar euskaltzale sutsuak; kamera atzean zein aurrean dabil-tzan kultur-gileak, ezagunagoak ala ez; Donostian kazetaritzatik eragitea posible dela erakusten ari den jende prestua eta ikastetxez ikastetxe haurrei mugikorrik gabeko arnaguneak sortzearen alde dabil-tzanak; eta era berean haurrei euskarazko dantzak eta kantuak erakusten dizkieten artistak. Kulturak salbatuko bagaitu, behin abiadura honi galga jarrita izan dadila.

Atxega jauregian testigu, ARGIAren ezinbesteko sostengu diren lagunak: harpidedunak, 50 urte baino gehiago daramatzatenek ordezkaturak. Ane, Dionni, Endika, Jesus Mari, Maria Luisa eta Ander. Haiek bai ikusiko zutela zertan aldatu den ARGIA, eta zertan segitzen duen berdin. Baita zertan eragiten jarraitu nahi duen ere. ●



50 urtez ARGIA babestu duten harpidedunak. Maria Luisa, Dionni, Ana, Jesus Mari, Ander eta Endika.

 ARGIA *Sariak* 2025

BABESLEAK

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAIA


GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

k
kutxabank

LABORAL
kutxa

Gobierno de Navarra **Nafarroako**
Gobernua

AGENDA
2030



Anton Mendizabal eskultoreak, 35 urte eta gero, Argia Sarietarako azken garaikurrak egin ditu aurten.



Gonbidatuak bazkari aurreko tertulian.



Izar Biain eta Aimar Uribesalgo.



Maite Goñi, Miren Josune Irabaien eta Garbiñe Mendizabal.



Aurtengo aurkezle izarrak Oroimen Historikoa podcastaren egileak izan dira, Nagore Irazustabarrena eta Axier Lopez.



Nagore Irazustabarrena, Oihana Arana eta Haizea Arana.



Ladix Arrosagarai, Sebastien Castet, Maddi Zubeldia eta Jenofa Berhokoirigoin.



Bego Zuza, Iban Arregi eta Idurre Eskisabel.



Igor Elordui, Maialen Begiristain, Zigor Olabarria, Sebastien Castet eta Pello Basurto.



Mahaiaren bueltan Garbiñe Larrea, Gorka Peñagarikano, Asier Kortabarria, Amets Aranguren, Aimar Uribesalgo, Danele Sarriugarte eta Gorka Bereziartua.

ARGIAKO LANTALDEAREN MEZUA

Mundu ilunean, ARGIA gehiago

✂️ AXIER LOPEZ 📷 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ARGIAko komunitatea osatzen duten milaka lagunetako batek berriki adierazi digu batzuetan ARGIA iluna dela, barruak mugiarazten dizkion albiste gogorrek daudela. Lan ona egiten dugula, baina albiste gaiztoek eztarria korapilatzen diotela.

Zer pentsatua ematen du, ezta? Genozidio bat eguneroko ogi bilakatu duen mundu honetaz zer esan behar dugu hedabide independenteok? Boteredunek hartutako erabakiek herritarroei eragin dizkiguten ondorioez idatzi, ala albisteak hain pisutsuak, hain gordinak izan ez daitezzen, fokua leku atsegingarriagoetan jarri? Babestutako natur guneak turistentzako museoz, epaitegiak euskarafoboz, mendiak haize-errotaz eta itsasoak pertsona migratzaileen gorpuz betetzen ari zaizkigunean, nola gozatu ikuspegia, gogorregi suertatu gabe? Ba al da modurik? Hedabideok etsipenaren zabaltzaile bilakatzeko arriskua egiazkoa da.

Eztabaida interesgarria da, areago faxismo berritua botere guneak hantzen eta bata bestearen segidan bereganatzen ari den garaiotan. Orain pare bat aste, neofaxismo berriaren topagunea antolatu dute AEBetan Donald Trumpen agintaldiaren hasierarekin ba-

Babestutako natur guneak turistentzako museoz, epaitegiak euskarafoboz, eta mendiak haize-errotaz betetzen ari zaizkigunean, nola gozatu ikuspegia, gogorregi suertatu gabe?

tera. Nekez sortuko dugu albiste onik han bildu eta esandakoetatik. Haien agenda-ri soilik erreparatuta gure buruak egin du, horrek galarazten baitigu etorkizuna beste era batez irudikatzea.

Haiak erantzunak ematen dituzte. Guk galderak aldatu behar ditugu.

10 urte dira ARGIAN Txikitik Eragiten leloa darabilgula. Eta lelo horri eman genion azalpenak oso bizirik jarraitzen du hamarkada baten ostean: "Txikititasunak lotura handia du ARGIAren iza-teko moduarekin eta lantzen ditugun gaiekin, desazkundearekin, bizimodu jasangarriagoekin, herrietatik sortutako

mugimenduekin, independentziarekin, kritikotasunarekin... Txiki asko, txikitik eragiten, bestelako mundu baterantz bidea urratzeko gai garelako".

Iazko uztailean erretreta hartu zuen Pello Zubiriak asmatu zuen, eta kazetari zakur zaharraren luma zorrotzak arrazoia zuen. Arrazoia du. Txikitik eragitera kondenatuta gaude. Ez gutxi garelako, edo ur handitan sartu barik, txikititasunean goxo egoten delako. Ez. Dena handira pentsatzen duten eta handi-nahikeriaz mintzo diren horien aurrean, txikitik, gertutik eragiteko gai diren proiektu asko behar ditugulako. ARGIAN ikuspegi horretatik ari gara lanean azken urteotan. Sarri, errazak ez diren erabakiak hartu behar badira ere. Gaur horietako baten berri eman nahi dizuegu.

Washingtongo neofaxisten desfile hartan, lehen lerroan, munduko hainbat agintariren aurretik, teknologiaren handikiak elkartu ziren ugazaba berriari ohore egitera. Gure bizitzen esparru gehienak bereganatu dituzten askotariko pantailen atzean daudenak: Amazon, Meta, Apple, Google eta TikTok-eko jabeak, besteak beste. Eta, jakina, horien buru, Twitterreko Elon Musk.

Bilkura horren ostean, multinazionalen menpeko hedabide nagusien kezka



Onintza Irureta Azkunek irakurri zuen ARGIAren mezua lantaldearen izenean.

bilakatu zen ea neofaxista horrek agur faxista egin ote zuen. ARGIA beste bide batetik jo dugu: joko-zelaia aldatzera goaz. Gaurtik aurrera ez diegu gure edukia dohainik oparituko Facebook eta Twitterri. ARGIAk ez ditu gehiago elikatuko herritarrak publizitate-jale bilakatu dituen bi plataforma horiek.

“Hedabideok jendea dagoen lekuetan egon behar dugu”, esaldi ezagun honek bere mugak erakutsi ditu jada. Feminismoak ondo erakutsi digunez: pertsonala politikoa da, eta egunerokoan hartzen ditugun erabakiek eragin zuzena dute norberaren eta gainerakoen bizitzetan. Plataforma toxikoetan argitaratzea herritarrak plataforma horietan sartzeko gonbita egitea da, sustatzen dituzten gorroto diskurtsoentzat irakurle posible gehiago ematea da. Hainbat urtez baliagarriak egin zaizkigu sare sozial horiek, eta dozenaka milaka laguneko komunitateak sortu ditugu. Ez da erraza horiek bat-batean alboratzea, baina kontraesanak kontraesan, ARGIA ondoriotatu dugu espazio bizigarriagoak elikatzen joan behar dugula. Sare sozial toxikoetan joko-zelaia trukatu dago, arbitroa erositako dago, algoritmoa bezalaxe, eta bot-en bitartez dopina bidezkoa da dirudunentzat. Beraz, agur Musk, adio Zuckerberg. Kaixo teknologia burujabetza! Kaixo fedibertsoa, eta eutsi Mastodon!

Sare sozial toxikoetara jo gabe ere, indarrean den logika kolonialaren ondorioak begi bistan dira. ARGIA ere lehen eskutik ezagutu ditugu. Solway multinazionalak mehatxatu gintuen 2023an, gure orrietan eskaintzeagatik Guatemalako El

Pozik azpimarratu behar dugu, lan asko eginda eta ordu asko inbertituta, euskarazko hedabideon eta Eusko Jaurlaritzaren artean sortutako elkarlana, Hekimenen eskutik

Estorreko lur eta bizitzen defentsan txikitik eragiten ari diren lagunak hitzak. Ez ginen isildu, eta, areago, duela bi hilabete, azaroan Solwayren ateetaraino joan ginen. Leire Artola lankidea Guatemalara joan zen hango kontuen berri ematen jarraitzeko, baina oraingoan, zuzenean. Solway, ez zenuen ogirik nahi, ba tori taloa!

Halakoak egiteko erremintak behar ditugu, aurrera egiteko, borrokatzeko, motibatuzko. Baina batez ere, behar duguna, lehen bezalatsu orain ere, jendea da. Irakurriko gaituen jendea, kritikatu gaituena, animatuko gaituena, eta, bereziki, eutsiko gaituena.

ARGIA aurreko urtean baino lagun gehiago gara, ARGIAko kide gehiago gara. Hamargarren urtez jarraian handitu dugu harpidedunen kopurua, 2015etik. Eta jada esan dezakegu proiektu honen aurrekontuaren %40 baino gehiago ARGIAko kideek egindako ekarpen ekonomikotik datorrela. Horixe da gure

diru-sarrera handiena, eta gure independentzia ekonomiko, politiko eta periodistikoaren berme nagusia. Zuek gabe, ARGIA ez da.

Etorkizunaz mintzo bagara, ezinbestean erakunde publikoen laguntzaz ere hitz egin behar dugu. Eta aurten pozik azpimarratu behar dugu, lan asko eginda eta ordu asko inbertituta, euskarazko hedabideon eta Jaurlaritzaren artean sortutako elkarlana, Hekimenen eskutik. Kazetaritzaren munduan euskara hizkuntza normalizatua izan dadin hedabideok egiten dugun lana diruz laguntzeko oinarri berriak adostu ditugu, euskarazko kazetarion lana, sarri prekarietate gertu izan dena, duintzeko. Eta zorionez, ildo beretik hitz egin behar dugu Nafarroako Gobernuaz. ARGIA diruz lagundu duelako, Nafarroari buruzko euskarazko edukiak sortzen eta hedatzen egin dugun lanagatik. Bi albisteok balio dezatela elkarlanerako bidea irauarazteko, eta oraindik ere okerrak diren egoerak konpontzeko, publizitate instituzionalaren banaketa bidegabea kasu.

ARGIA osatzen dugun 25 lankideok 106garren urtea gehitzera goaz euskarazko hedabide eta abentura zoragarri honen historiari. 1919tik denetarik ikusi du gure herriak. Egin kontu! Eta nola edo hala, beti asmatu dugu aurrera ateratzen, pauso txikiekin, baina atzera egin gabe. Bizitzeko eta gozatzeko moduko Euskal Herri euskaldunaren bidean, kanpora besoak zabalik dituena, gainerako herriein elkartasunean.

Mundua ilundu nahi dutenei ARGIAren bitartez erantzuten jarraituko dugu. ●

ZERGATIK UTZI DITU ARGIAK TWITTER ETA FACEBOOK?

Gorrotoa sustatzen duten algoritmoak, mendekotasuna sortzeko diseinatutako aplikazioak, pertsonak beharrezko publizitate-hartzaileak ikusten dituzten plataformak, merkantzia gisa tratatzen gaituzten sare sozialak... Badirudi azken aldian herritarrek sare sozial handietatik toxikotasuna baino ez dutela jasotzen, eta horretan hedabideok ere badugu zeresana. Edukiak zabaltzeko plataforma bat ala beste aukeratzeak herritarrengan eragin zuzena du.

 AXIER LOPEZ

Jendea dagoen lekuan egon behar dugu hedabideok". Guk ere hori esan izan dugu kazetaritzaren bitartez sustatu nahi ditugun balioen antipodetan dauden zerbitzuak erabiltzen jarraitzeko. Kapitalismoan bizitzeak kontraesanak kudeatzea dakar ezinbestean. Eta, tamalez, Internet etengabe aztertu beharreko eremu bilakatu da, pertsonena baino multinazional gutxi batzuen oligopolio bilakatu delako. Google, Amazon, Apple, Meta –Facebook, Instagram eta Whatsapeen jabea– eta Microsoftek demaseko boterea bildu dute, eta gu denon bizitzak, hein batean edo bestean, baldintzatu dituzte.

Lehen sare sozialak sortu zirenean, ARGIA aukera gisa ikusi genituen eta lehendabiziko urte horietan erakutsi genuen, Twitter eta Facebooken egindako lanaren bidez, gure kazetaritza ezagu-

tzen ez zuen jende askorengana iristeko gai ginela. Sare sozialen hastapen horiek oso interesgarriak izan ziren, hedabide klasikoek agenda markatzeko zuten monopolioa apurtzeko beta izan genuelako hedabide independenteok batzuetan, herritar orori informatzeko aukera ematearekin batera. Hedabide handiak "kazetaritzaren krisia"-z mintzo ziren, estali nahian egiatan krisian zeudena haien negozio eredua eta informazioaren monopolioa zirela. Baina segituan agertu ziren mugak.

Sare sozial horien atzean zeuden enpresak gero eta handiago bilakatzen ari ziren, eta gero eta nabarmenago utzi zituzten haien interes ekonomiko eta politikoak. 2010eko hamarkadan Twitter, Facebook eta antzeko plataforma komertzialak erabiltzen hasi ginenean, jakin bagenekien jabeek batez ere dirua egitea zutela buruan, ez baitzuten

ezkututzen. Sare sozial komertzialak denborarekin gero eta eremu lehiakorrago egin dira, eta kontraesanak handitu zaizkigu. Ustez eragiteko eremu handi bat eskaini ziguten, baina elkar ezagutzeko, politikoki antolatzeko edo dibertitzeko ei ziren espazio digital horiek, konturatzera, eduki toxikoz jositako eremu erreazionario bilakatu zaizkigu.

Kontraesanak kontraesan, euskarazko kazetaritza independentea gehiago hedatzeko, denbora batez sare horiek baliagarriak izan zitzaizkigun; baina egunetik egunera gero eta gutxiago. Horregatik, ARGIA espazio toxiko horietatik nola irten pentsatzen aritu gara azken denboretan. Urrats batzuk egin ditugu, eta orain pauso handi bat ematera goaz: Twitter eta Facebook erabiltzeari uztea erabaki dugu. Hemen dituzue gure arrazoiak.



GREENPEACEK X-tik alde egingo duela iragartzeko erabilitako irudia.

HAIEN NEGOZIOA GU GARA

Silicon Valleyko inperio teknologikoen, Facebookek esaterako, publikoki onartzen dute –duela zortzi urte baino gehiagotik– beren plataformen diseinuetan eduki adiktiboak nahita sartu izana. Oso arrazoi simple batengatik: Twitter, Facebook, Instagram eta abarren helburua ez da erabiltzaileak entretenitzea, ez jendea harremanetan jartzea, ezta, are gutxiago, informatzea ere. Haien helburua da erabiltzaileek haien aplikazioa ez ixtea, haien iragarkiak ikusten jarraitzeko.

Silicon Valleyren gurutetako bat izan zen Jaron Lanier, errealitate birtualaren aitapontetako, Google eta Microsoften aholkulari izandakoa. Gaiaz honela dio: "Oinarrizko egiturak diseinatuta daude erabiltzaileek plataforman ahalik eta denbora gehien igaro dezaten. Hori da beren negozio-eredua. Erabiltzaileen arreta eta datuak publizitate-enpresei eta gainerako enpresa propagandistei saltzen dizkiete. Facebook manipulatzeko makina bat da. Eta Twitterrek, WhatsApp, Instagramek edo YouTube printzipio berekin funtzionatzen dute". Alegia, gu geu sartu garen gurpilak honela funtzionatzen du: aurrena adiktzioa sortu, ondoren erabiltzaileen datuak metatu (bisitatutako webguneak, lagu-

nak, erosketak, gustuak...) eta, ondoren, beste enpresa batzuei saldu, batez ere publizitate-agentziei.

Gurpil zoro honek munduan lehen mailako arazo politikoa eragin du, eta ARGIA n uste dugu botere metaketa hori ez genukeela gehiago handitzen lagundu behar.

TEKNOLOGIA BURUJABETZARANTZ

Arazo hau aspalditik dator, baina haren ondorio kaltegarriak azken urteotan ari dira gordintasunez agertzen herritar gehienek begietara. ARGIA n urteak dira

Twitterren jada ez dago "jende guztia". Ez dago hor "ezinbestean egon beharrik". Hori amaitu egin da eta gure irteerarekin ideia hori indartu nahi dugu.

burujabetzaren aldeko hautua egin genuela eta bizitzaren gainerako esparru guztietan bezalaxe, mundu teknologikoan ere bai.

Bide horretan hainbat erabaki hartu dugu jada, hona esanguratsuenetakoak:

- 2018ko apirilean sortu zuen ARGIAk lehen kontua Mastodon sare sozial deszentralizatuan, euskal komunitateak oraindik existitzen ez zirenean. Hilabete batzuk geroago, hainbat eragile euskara eta euskal kulturaren Mastodon komunitatea sortzeko lanean hasi ziren. ARGIAk ez zuen zalantzarik egin, eta hasieratik hartu zuen parte.

- 2021ean PeerTube instantzia propioa sortu genuen: bideoak.argia.eus, gure bideoak sarreratzeko.

- 2021eko ekainean Googlerekin lotutako zerbitzu guztiak kendu genituen gure webgunetik, eta nagusiki estatistikak kudeatzeko Euskal Herrian oso barreiatuta dagoen Google Analytics erabiltzeari laga. Orduetik Matomo software librea erabiltzen dugu.

- 2023ko irailean, ARGIAren euskarri guztietatik (aldizkaria, webgunea, iragarkiak, kartelak...) sare sozial toxikoen erreferentzia oro kentzea erabaki genuen, doako publizitatea ez egitearren.

ZERGATIK EZ GARA LEHENAGO JOAN SARE TOXIKOETATIK?

Kontraesana dirudi gizarte hobea nahi duenak sare sozial toxikoak elikatzen jarraitzeak, ezta? Baina ateratzea ez da dirudien bezain erraza. Plataforma horietan komunitateak sortzen eta elikatzen denbora eta lan handia inbertitu dugu, eta egun batetik bestera horiek abandonatzeak barruak mugiarazten ditu. Ez da huskeria 55.000 pertsonak osaturiko komunitatea abandonatzea Twitterren eta beste 28.000 Facebooken. Baina bada garaia logika geldiarazle hori gainditzeko.

Biraltasunaren ilusioak itsutu gaitu milaka pertsonarengana irits gaitzkeelakoan, baina errealtatea da gizartea aldatu nahi dugunok ez garea emaitza onak lortzen ari.

Hala, ARGIAko langileok erabaki dugu sare sozialen plataforma guztietan dugun jarduna baloratzea, ARGIAk horietan parte hartzeak sortzen dizkigun kontraesanak eta ematen dizkigun onurak publiko egitea. Eta horren arabera, ezer ezkutatzeko ala galtzeko beldurrik gabe, eroso sentiaraziko gaituen jarrera geure egitea. Otsailetik aurrera, hauxe izango da ARGIAren jarduna sare sozialetan.

TWITTER / X

Ez da jendeak gehien erabiltzen duen sarea, baina kazetaritzan, aktibismoan eta politikan gehien erabili izan dena da. Eskuin muturraren nazioarteko olatu berriaren ikur bilakatu da orain, lehen eskuin muturraren aurkako manifestazioen berri zuzenean kontatzeko erabilitako tresna. Eztabaida toxikoen aterpe eta *fake news*-en egoitza bilakatu da, are nabarmenago Elon Musk neofaxistak erosi zuenetik.

Ideologikoki ez dugu aldeko argudioirik aurkitu ARGIAk plataforma hori elikatzen jarraitzeko. Egia esan, orain dela lau edo bost urte ere ez, baina azken urteotan jasangaitzago egin da plataformaren erudia.

Twitter barrutik eraldatzeko aukerarik ez dugu ikusten. Twitter ez da eremu neutroa. Epaileak, arauak eta jokalaria (bot-ak) erositako daude. Borroka eman behar da irabazteko aukerak eskaintzen dizkizuten tresnekin. Eta gure ustez, Twitter ez da kasua.

Twitterren 55.000 jarraitzaile inguru ditu ARGIAren kontu nagusiak, eta beste hainbat kontu ere badugu plataforman. 2024an ARGIA.eus webgunean izandako bisita guztien %7 Twitterretik heldu zen.

Gauzak horrela, ARGIAko lankideok ondorioztatu dugu Twitterren egoiteak alde negatibo gehiago duela positiboak baino, eta beraz, ARGIAren Twitter kontu guztiak erabiltzeari uztea erabaki dugu.

Twitterren jada ez dago “jende guztia”. Ez dago hor “ezinbestean egon beharrik”. Hori amaitu egin da eta gure irteerarekin ideia hori indartu nahi dugu.

FACEBOOK

Twitterren antzeko irakurketa egin dugu. Ideologikoki ez dugu aurkitu Mark Zuckerbergen enpresari gure edukiak doan eskaintzen jarraitzeko aldeko argudioirik. ARGIA nahi dugun bizitza ereduaren aurkako balioak hedatzen ditu multinazionalak, eta azken urteotan are nabarmenago.

Facebooken 28.000 jarraitzaile inguru ditu ARGIAren kontu nagusiak. 2024an ARGIA.eus-en izandako bisita guztien %6 Facebooketik heldu zen, baina azken urteotan gainbehera batean dago. 2023an bisita kopurua bikoitza izan zen, erdira jaitsi da urte bakar batean.


ARGIAko kazetariok argi ikusi dugu Facebooken darabilen algoritmoak kazetaritza lanen zabalpena zigortzen duela. Azken urteotan izugarri jaitsi dira irakurleekiko interkazioak. Gure publikazio asko ez die erakutsi ere egiten jarraitzen gaituzten 28.000 pertsoneri, Facebookek ez du nahi bere erabiltzeak beste webgune batzuetara joatea, eta hedabideon jarduna plataforma horietan nagusiki horixe da, jendea plataforma horietatik gure webgunera erakartzea.

Beraz, ARGIA Facebooketik ere badao.

INSTAGRAM

Facebooken jabe bera du Instagramek, eta darabilen algoritmoaren atzean helburu toxiko berak daude. Berriki, Metak moderazio politikak irauli ditu Donald Trump Etxe Zurira itzultzeko bezperatan. Finean, homofobia, arrazakeria eta transfobia baimentzeko modu esplizitua da, Facebook, Instagram eta WhatsAppen.

Scroll infinituaren sustatzaile den plataforma honek sare sozialen alderdi soziala alboratu du negozioaren izenean. Baina, halere, tamalez, milaka eta milaka gazte euskaldun biltzen



2024ko abenduaren amaieran ARGIAk azala eta gai inguruko eztabaidari.

duen plataforma da. Areago, bakarrik plataforma horretan parte hartzen duen jende asko dago.

Orain dela urte gutxi hasi ginen ARGIA n Instagrami arreta eskaintzen. Eta oraindik ere, ageriko kontraesanak kontraesan, tresna baliagarria zaigula ondorioztatu dugu komunitatea handitzeko, batez ere pertsona batzuegana heltzeko eraginkorra zaigulako, eta beste bide batetik haiengana heltzea ezinezkoa litzaigukeelako.

Hala, momentuz, Instagramen publikatzen jarraitzea erabaki dugu.



nagusia eskaini genizkion sare sozialen

BLUESKY

Bluesky plataforma berria agertu da skorentzat Twitterren alternatiba gisa. Silicon Valleyko enpresa batek garatu du, eta kriptomona eta Big Techeko inbertitzaileetatik datorren arrisku-kapitalari esker funtzionatzen du. Twitterren izandako garapen okerra berriz gertatzeko aukera asko ikusten dugu. Edonola ere, jende asko joan da plataforma horretara, Twitterrek utzi duen hutsunea ordezkatu nahian. Beraz, ARGIAk kontua irekiko du Bluesky plataforman, baina Mastodon izango da lehenetsiko dugun tresna.

TIK TOK

Hainbat aldiz saiatu izan gara Txinako multinazionalaren plataforman gure edukia partekatzen, baina beti Tik Tok-ek zentsuratu egin du gure kontua, batez ere, Palestinarekin loturiko bideoak aitzakia hartuta. Beraz, lehen bezala, orain ere ARGIAk ez du plataforma horretan parte hartuko.

TELEGRAM

Oso tresna baliagarria iruditzen zaigu zuzenean gure komunitateko kideen telefono mugikorretara informazioa bidali ahal izatea. Hala, Telegramek aukera hori eskaini zuenean, segituan heldu genion aukerari eta 2016ko uztailean ireki genuen kanala. Gaur egun 5.200 lagun baino gehiago harpidetuta daude. Bizi Baratzeak eta Beranduegi podkastak ere badute kanal propioa.

Telegramen atzean dagoen multinazionala ez da guretzat nahiko gurek ere, eta segurtasunaz WhatsAppen aldean ageriko abantailak eskaintzen baditu ere, jakitun gara Telegramek badituela alde ilunak. Edonola ere, ARGIArentzat oso tresna erabilgarria da eta askatasun handia ematen digu edukiak zabaltzeko, publizitaterik jaso beharrik gabe.

WHATSAPP

Facebook eta Instagramen jabearena izanik, arestian azaldutako haien ildo eta balore toxikoak sustatzen ditu. Aldi bereko mezularitzaren munduan erabiltzaile gehien duen plataforma da Mendebalde osoan zein Euskal Herrian. Informazio kanalak sortzeko aukera berria da WhatsAppen, eta abian jarri zutenerako ARGIAk Telegramen komunitate trinkoa sortua zuen.

Beraz, WhatsAppen enpresa eredu eta balioak kontrajarriak direnez ARGIAk babesten dituenekin, eta telefonoan momentuko informazioa jasotzeko kanala Telegramen badugunez, orain arte bezala WhatsAppen konturik ez irekitzea berretsi dugu.

TRESNA PROPIOEN ALDEKO APUSTUA

ARGIAN jakitun gara hedabidearen eta edukien independentzia bermatzeko tresnarik onenak guk geuk kudeatutakoak direla, irakurleen onura erdigunean jarrita. Beraz, Twitter eta Facebook elikatzeak kentzen zigun denbora, tresna horiek indartzeko baliatuko dugu orain.

ARGIA.EUS

Webgunean dago egiten dugun guztia. Gure tresna nagusia da, aldizkariarekin batera. Horregatik, ARGIAren komunitateko kideei eskatzen diegu ARGIAren webgunera zuzenean sartzeko, bitartekaririk gabe, horixe baita informazioa eskuratzeko biderik gardenena eta eraginkorrena. Proiektu eta atal berriak garatzeko asmoa dugu eta datozen hilabeteetan publiko egingo ditugu.

EMAIL BULETINAK

Buletin bat bidaltzen dugu gauero, egunean ARGIAN argitaratu ditugun edukien bilduma gisa. Buletin hori berritzera goaz, itxura, eduki eta funtzionalitate berriak gehituta. Horrekin batera, beste proiektu handiago bat martxan jartzen ari gara.

FEDIBERTSOA

“Gure tresnak” diogunean, ez gara ari ARGIAk bakarrik kudeatu edo sortutakoek. Euskal komunitatek autogestioatutako tresna libreak ere geure sentitzen ditugu. Fedibertsoa elkarren artean komunikatzen diren sare sozial libreen multzoa da eta Mastodon dugu ezagunena. Euskal Herrian hainbat instantzia ditu, euskararen erabilera sustatzeko propio sortuak, eta hala, euskarazko komunikabideok edukiak askatasunez eta errespetuz argitaratu eta partekatzeko plataforma deszentralizatu egokia da.

ARGIAN erabaki dugu Mastodonen gure indarrak handitzea, eta 2016tik egin izan dugunaz gain, Mastodonentzat propio sortutako edukiak partekatzen hasiko gara.

INDEPENDENTZIARI ESKER

ARGIAN horrelako erabakiak harritzaile ekonomikoki eta politikoki independenteak garelako. Gure komunitateko kideek hileroko egiten duten diru-ekarpenak dira ARGIAren euskarri ekonomiko nagusia.

Gure kazetaritzaren helburua ez da nola edo hala ahalik eta jende gehienengana heltzea. ARGIAk gizartearen eragin nahi du, Euskal Herriaren zapi lurraldeetan ikuspegi askatzaile batetik herritarrak informatuz. Euskaratik eta euskaraz. Horregatik gure edukiak ez daude sare sozialetako algoritmo erraldoien kapritxoetara egokituta. Txikitik eragiten jarraitu nahi dugu, baita Interneten ere. Jarrai dezagun! ●

SASOITU

ARTILE, KARENA ETA ORITZA



JOSEBE BLANCO
@HAUSNARREAN

Artiletan sustraitzeak ematen duen bakeak salbatzen nau maiz, kanpoko zein barruko ekaitzetatik. Artilea baino bakegile eraginkorragorik ez dut aurkitu inguruan. Bere indarra areagotzen da odola, karena eta oritza tartean badaude; artilearekin batera haiek ere ehundu baitute egun ekaitz horietatik babesten nauen anoraka.

Urtarrilaren 7an Biloria jaio izanak aurrera begira jarri ninduen, esperantzaz; hura babestu zuen karena erakutsi zidan desio dudan mundu berri on horren lorratza.

Horrela ahaztu zitzaidan herrira joateko, seme-alaben opor garaian hainbestetan erabili dugun pistan, Pagamendi aldean, bota duten obra-hondakin pila. Han baten batek ondutako hondakindegia! Bideak dituen zuloak estaltzeko izango ote ziren hango adreilu, azulejo eta gainontzekoak; baina hilabete baino gehiago pasa ondoren, han topatu dute etxeren bateko pusketek atsedena.

Eskerrak Biloriak itxi egin zuen ziklo hura... Bai, jakina, barruan ere badira gorabeherak... Handik egun gutxitara, Luziri arkumea ito zitzaion, poltsan, eta gajoak egun batzuk pasa zituen karena osorik bota ezinda. Zorionez, beste asko etorri dira, tartean Serranillaren txikiak. Ez du meritu makala, bederatzi urte izanik, bikotea egin eta aurrera ongi ateratzea. Bere urruxa etxerako izango da, amaren xume bezain osasuntsu izan dezala bizitza luzea berak ere...

Dena den, argetik ateratzea nahikoa da berriz ere kanpoko ekaitzen erasoak aurpegian sentitzeko.

Oraingo honetan basurdeen lanak belardietan. Egunero-egunero opari bat: patata ereiteko aukera. Goldea pasako bagenu, ez genuke hain dotore utziko desiratzen ez dugun balizko patata-saila. Guk landatu berri ditugun sagarmin, haritz eta pago gazteak bidean topatzen badituzte, horiek ere errotik erauzten dituzte. Babeserako tutua jarrita, antza, ez zaizkie hain erakargarriak egiten. Belardietan, lurrak zuzendu eta berdintzeko denbora atera behar, ez dugun hori... Edozein kasutan, desmasiaren soluzioa ez dago baserritar arrunton esku. Beste batzuen teilatuan dago pilota, nahiz eta errebotean gure etxeak hondatzen dituzten, hemen eta han, bazterrik bazter, dabilzan basurde saldoek.

Banator, berriz ere, babesera. Pekatsuren alaba urruxaz erditu da. Primi aharikoz. Hektor urruxaz, ohikoa duen patxada horrekin. Gorri-gorri ere urruxa izan du, txikia bezain goxoa, ama bezalakoa. Egunak pasa dira jaio zenetik, eta oraindik laguntza behar du tituburua aurkitzeko, baina berdin dio, gogoko tokian aldaparik ez, eta gustura jaisten naiz hura edanaraztera, sekulako oparia baita euren intimitate horretan sartzeko irekitzen didaten atetxoa.

Nahiago egon oritzdun intimitate horretan mingain urdinaren balizko txertaketaren hodei beltzaren azpian



JOSEBE BLANCO

baino. Urtarrilaren 15ean bukatzen zen derrigorrezko txertaketa epea, eta bezperan deitu ziguten etortzekoak zirela ardiak txertatzera. Atzeratzeko eskatu genion deitu zigunari, erditze garai bertean garela; bektore lana egiten duen eltxoa zazpi gradu azpitik hiltzen dela, beraz, arriskurik ez... Esan genion esateko arduradunari guri deitzeko, eta geure egoeraren berri emango geniola.

Ardien marruek bahitzen gaituzte, eta hantxe gaude berriro, artile artean, karena jasotzen eta arkumeek edan dutela ziurtatzen, arkumeek edan gabeko esneak jezten. Halaxe harrapatu gaitu Honoriren erditzeak, eta eguerdi aldean Anarirenak, belardian. Ahariko bana. Pena urruxak ez izatea...

Halere, ez dago modurik ardiek Pik utzitako hutsunea estaltzeko, ezta etxean geratzen diren txakurren presentziak ere, Ikatzek, bere antza duenez, akaso, disimulatuko du? Guk emetan irudikatu genuen eta bera hilda zegoen, baso baten pistan. Jada Xarpa xaharra ondoan dago.

Epe motzean aurreikusitako 105 erditzeetatik, oraindik 59 geratzen zaizkigu. Balio dezatela horien karenek eta oritzek Piren heriotzak sortutako samina goxatzeko. Balio dezala gure ardien artileak orain ospelean bizi diren bihotzak epeletzeko. ●

A ZE FAUNA!

NATURAKO GARBITZAILEA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA



PIERRE DALOUS / WIKIMEDIA COMMONS CC-A-SA-3.0

Gurean hain ezaguna den hegazti hau ustelzale porrokatua da, eta honek ez dio fama onik ekarri. Batzuek arrano, buitre, futre, hatxarrano edo mirusai deitzen diote; izen ofiziala sai arrea (*Gyps fulvus*) da. Urola-kostaldean batzuek leporgorri ere deitzen omen diote, eta arrazoiarekin, denok baitugu sai talde bat hildako animalia baten inguruan elikatzen ari direnako irudia buruan, saiek burua eta lepoa odolez beterik dutela. Irudi hauek nahiko gogorak eta “gore”ak ere izan daitezke, eta honek putrearen fama txarra sustatu arren, gizakion eta ekosistemaren ongi-zaterako behar-beharrezkoak diren hegaztiak dira.

Sai arreak hildako animaliez elikatzen dira, hau da, sarraskijaleak dira. Hil berri dauden animalien okela jaten dutenean, ez diote okelari usteltzeko denborarik ematen eta ondorioz, okela usteltzerakoan agertu daitezkeen patogeno arriskuetsuen hazkundera ekiditen dute. Putrerik gabe, hildako animaliek lau aldiz denbora gehiago beharko lukete deskonposatzeko. Hildako gorpua bat deskonposatzen denbora asko igarotzen badu, beste espezieentzako infekzio puntu da eta gaixotasun baten ondorioz hil baldin bada, are gehiago. Ondorioz, gorpura inguratzen diren bizidunak infektatuz gero, animalien artean zabaldu daiteke gaitza baserrietako abereengana edo etxeo animalietara, eta gizakiongan heldzeko aukerak ere handitzen dira. Sairik gabe, hildako animalia modu industrialean erraustea aukera bat litzateke, baina hau

ez da beti posible eta posible denean ere, gastu ekonomiko bat da. Horrez gain, hildako animalien gaixotasunak zabaltzea ekiditen dutenez, gaixotasun hauek bai abereetan zein gizakiongan tratatzeko gastatu beharko litzatekeen dirua arrezten digute.

Eta nola da posible saiek sarraskia jan eta ez gaixotzea? Animalia hauen urdailko pH-a oso azidoa delako, sarraskian egon daitezkeen patogenoak akabatzen adinakoa. Baina sarraskiak ez dira egunero aurkitzen, hau dela-eta, hegazti hauek metabolismoa izugarri jaitsi dezakete eta baraualdia luzatu elikagaia aurkitu arte. Bi edo hiru aste pasatu ditzakete baraurik. Ikertzaileek behatutakoaren arabera, elikagaien bila egiten dituzten distantziak batez beste 141 km dira, urtaroren arabera aldaketak dauden arren: neguan distantzia motzagoak egiten dituzte, etzalekutik gertuago gelditzen dira eta udan aldiz, luzeagoak. Noizbehinka beraien lurraldeetatik irten eta distantzia luzeak egiten dituzte, 1.750 km-raino-koak izan daitezkeenak.

Gehienok ikusi ditugu sai arreak hegagan, hegalak mugitu gabe eta bueltak ematen. Hau energiari gabe hegan egiteko korrante termikoak erabiltzen dituztelako da. Korrante termikoak, airea berotzean sortzen diren eta gorantz mugitzen diren aire bero zutabeak dira. Saiek zutabe hauek aprobeztatzen dituzte airearekin batera altuera irabazteko. Baina sai multzo bat bueltaka eta altuera galtzen ikusiz gero, hori bai, sarraskiren bat topatu dutenaren seinale da.

SAI ARREA

Gyps fulvus

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatsera 95-110 cm. Hego-luzera 230-265 cm.

NON BIZI DA? Harkaiztietan, leku irekietan.

ZER JATEN DU? Sarraskia.

BABES MAILA: Europa mailan babestuta dago.

Gaur egun Euskal Herriko sai arre populazioa egoera ona duen arren, hauek dira espezieak pairatzen dituen kontserbazio arazo nagusiak: pozoiek eragindako heriotzak, legez kontrako ehiza, linea elektrikoak eta haize-errotak, eskuragarri dagoen janari kantitatearen beherakada, abeltzaintza ohituren aldaketak eta abere hilak kudeatzeko osasun arloko araudiaren aplikazio zorrotza. Bigarren mailako pozoitzeak ganaduaren gaixotasunei aurre egiteko erabiltzen diren tratamendu sanitarioak irensteagatik ematen dira. Izan ere, tratamendu sanitario hauek hartu dituen ganaduaren okela irenstean, saiak tratamendua bera ere irensten du, eta hegaztiari kalte edo heriotza eragiten dio. Hau saihesteko diclofenacol-aren erabilera debekatu eta hain kaltegarriak ez diren produktuekin ordezkatu beharko litzateke. ●

IKATZA ERRETZEKO ETA MARRAZTEKO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Agur negu. Negu betea da eta badoa. Mimosak (*Acacia dealbata*) eta magnoliak (*Magnolia soulangeana* eta *Magnolia stellata*) loratu dira, ongi etorri beraz loraldi nagusiei. Baina kontuz hotzarekin. Dagoeneko egun-argia ordubete pasatxo luzatu bada ere, zehar begiraturaz bada ere zaindu hotza, goi-goietan eta beheko zulo hezeetan eta gehiago.

Su egurra dantzatu eta piztu sua. Suak bizipoza ematen digu solstizioetan: neguaren hasieran eguna motzetik luzera igarotzen denean bezala, udarakoan eguna luzetik motzera igarotzen denean kallean su handiak zirikatatu eta bizitzen ditugunean. Suak kilikatzen gaitu, berotzen.

Suaren aldamenen beroa nahi badugu egurra eman behar, baina egurra eman, eman, ikatzarekin ematen zaio. Putz eginda ufatu eta hotzak erreko zaizkizu. Horrela aritzen da ikazkina ere. Ikatzak su egurrak bezala bitan berotzen duela esaten da: egitean eta erretzean. Ikatza egingo du ikazkinak, non bizi den txondor-lekuan edo txondor-larrainean edo txondor-zuloan edo txondor-plazan edo ikaztobian edo ikaztobi-larrainean edo ikaztobi-zuloan edo ikazlarrainean edo ikazlabearen edo ikazlauan; izan ere non ez da egin izan ikatza! Bateren bat izango zen Ikaztegieta ere!

Zenbat ikatz dira, ordea? Ikatz-ikatz, adakiarekin egindako txondorretik sortzen da. Baina bada tramada ere. Tramada txondorren inguruan geratzen zen ikatz hondar kaxkarra da. Baliatuko zuten hori ere, baina ez zen ikatzaren zakueta abiatuko. Iduria ere badugu. Iduria edo adaki-ikatz edo abar-ikatz adar ttikiekin egindako ikatz ttikia zen, batez ere sutontzietarako eta metal bitxiak urtzeko sutegietan erretzeko. Iduri-zuloetan egin izan da iduria, batez ere abaritzarekin (*Quercus coccinea*).



2024an Lekunberrin egin zuten txondorra.

Bringa-txondorrak, subil-txondorrak, ilinta-txondorrak. Erabilitako egurren tamainaren arabera esaten zitzaizkien txondorrei. Ikatzik preziatuena artearena (*Quercus ilex*) da. Baina haritza (*Quercus robur* eta *Quercus petraea*), pagoa (*Fagus sylvatica*), gaztaina (*Castanea sativa*), elorri zuria (*Crataegus spp.*), astigarra (*Acer campestre*), lizarra (*Fraxinus excelsior*) eta eskuera zen edozein egur gogor-antzeko ere egosi izan da txondorretan.

Ikatzak ez dira arranparriletan edo sutontzietan erretzeko bakarrik. Makina bat sutei eta labetan urtu da mea ugari. Bolborak ikatzarekin egiten dira, %10-30, eta zein egurrekin egindakoa den halako iraupena eta indarra izango ditu leherketak, eta zeruko marrazkian kolore bat edo beste emango du. Bala eta bonba hiltzailak abiarazten dituen bezala, ikuskizun pirotekniko dotoreenak ere pizten ditu. Piroteknian bolbora bereziak erabiltzen dira, nahi den efektua eragiteko kolorea, iraunkortasuna eta abar dutenak: ahuntz-sahatsa (*Salix caprea*), makala (*Populus*

nigra), zurzurria (*Populus alba*) eta lertxuna (*Populus tremula*) azkar erretzen dira, pinuak (*Pinus spp.*) urre kolorea eranstendu, mahatsoak (*Vitis vinifera*) urre kolorea eta indar handia, miterrari (*Juniperus sabina*) eta ipuruari (*Juniperus communis*) ke gorria darie eta azkar erretzen dira eta arteak (*Quercus ilex*) ke gorritzurrekara ematen du eta iraupen luzea du.

Marrazkitarako ikatz-ziri ezagunak egiteko ere ikatzaren antzeko bidea egin behar du egur ziriak: egosi. Sahatsak eta zumeak (*Salix spp.*) dira onenak, eta zume negartiarena (*Salix babylonica*) prezia-tuena. Erabiltzen dira, baita ere, ezpe-la (*Buxus sempervirens*), basaerramua (*Euonymus europaeus*), intxaurrendoa (*Juglans regia*), izeia (*Picea sp.*), ezkia (*Tilia sp.*), aranondoa (*Prunus domestica*) eta pikondoa (*Ficus carica*).

Eta marrazkiak gorputzean egin nahi eta tintarik topatzen ez edo garestiegia zenean, marinelek tatuajeak ikatz nahasketa batekin egiten zituzten: ikatz azalpera. ●

BIO-K

EUSKAL HERRIKO TXUKRUTA ETA KIMCHIA



GARAZI ZABALETA

Erezilera bizitzera joan eta sagar-rondoak landatu zituen Satxa Zeberio, Bio-K proiektuaren bultzatzaileak, duela zenbait urte. “Iritsi zen sagarrekin zerbait egiteko momentua, eta sagar zukua eta sagardoa ekoizteari ekin genion orduan”, azaldu du. 2015ean sortu zuten Bio-K proiektua ofizialki, eta sagarrari lotutako hasierako ekoizpenaz gain, produktu hartzituekin ere probak egiten hasi zen. Txukruta, kimchia, sagar zukua, sagardoa eta ozpina ekoizten dituzte gaur egun.

BASERRIAN BIZITZEKO HAUTUA

Zeberio ez zuen lehen sektorearekin eta nekazaritzarekin inolako harremanik lehenagotik, baina bazen denbora baserri mundura mugitzeko gogoz zebilela: “Kanpoan egiten nuen nik lan, baina beti nuen erronka hori buruan, eta aukera suertatu zenean, poliki-poliki pausoak ematen hasi ginen”, azaldu du. Errezilen bertan obratzailea martxan jarri zuten sagar zukua eta sagardoa ekoizteko, nahiz eta gaur egun Astigarragara lekualdatu duten gunea. “Ekoizpen osoa ekologikoan egiten dugu oraintxe bertan”.

Sagardoa eta sagar zukua egitea gu-rean ohikoa izan daitekeen bezala, hain ohikoa ez dena produktu fermentatuena da, Bio-K proiektuak aurrera egin ahal gehitzen joan direna. “Hartziduraren munduan nahiko sartua nenbilen egitasmoa abiatu baino lehenagotik. Egia da mundu oso zabala dela, ez duela amaierarik, baina gu, momentuz, hiru hartzitu motarekin ari gara”, adierazi du Zeberio. Hartzidura laktikoak dira lantzen dituztenak, eta proiektuko kideak nabarmendu duenez, Europa iparraldeko herrialdeetan oso zabaldua daude. “Gurean ere geroz eta ezagunagoak dira eta erantzun ona ari dira izaten”, gehitu du. Hartzidura prozesua izan duen aza da txukruta, eta kimchia ere bai, baina azken hau zapore pikantearekin maneaturia egon ohi da.

ETXEKO LEHENGAIK EZ DIRENEAN, HURBILEKOAK

Bio-K proiektua abiatu zutenean haiek ekoiztutako lehengaiak soilik erabiltzen zituzten eraldaketak egiteko, baina urteotan ekoizpena handitzen joan da, eta gaur egun Nafarroako kooperatiba baten bidez ere eskuratzen dituzte zenbait pro-



Bio-K proiektuak egindako kimchia. Hartzidura prozesua izan duen aza da txukruta, eta kimchia ere bai, baina azken hau zapore pikantearekin maneaturia egon ohi da.

duktu: “Sagardo guztia gure sagarrekin egiten dugu, baina txukrutak eta kimchia egiteko kanpotik ere badakarkigu produktuen zati bat”. Hurbileko nekazariarekin lan egiten saiatzen dira, posible duten heinean behintzat.

Proiektuaren webgunean eskaera eginda eskuratu daitezke haien produktuak, eta baita Euskal Herriko hainbat txokotako dendetan ere. Azken urteetan, gainera, sariak irabazi ditu proiektuak nazioarteko lehiaketa batean. “Ozpina-rekin hainbat sari irabazi ditugu, 2024an adibidez, urrezko domina lortu genuen. Sari horiek proiektuarekin segitzeko motibazio dira beti, nonbait, gauzak ongi egiten ari garen seinale”, amaitu du. ●

MATRIKULA ZABALIK

HH, LH eta DBH Otsailaren 3tik 14ra

ATE IREKIAK : Otsailak 8 < Euskaraz : 10:00
Gaztelerez : 10:30

HH2 Aurkezpen bilera : Otsailak 5 < Euskaraz : 17:00
Gaztelerez : 18:00

Eskabideak egiteko 2 aukera :

ONLINE

<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio>

IDAZKARITZAN

Aldez aurretik hitzordua hartuta 943 880 800

2025eko irailean HH2n hasi nahi izanez gero

2023an jaiotako guztiak aurrematrikula egin behar dute



www.sanbenitoikastola.eus

SUSTRAIAK SAKON ETORKIZUNERAKO PREST



Eskabide emandaketa a/g - 2025/2026
Tel: 943 880 800 - ikas@ikasgunea.eus

Nola sortu kriminal bat

(eta zergatik Aroztegiko auzipetuak ez diren kriminalak)

Euskal nobela beltzaren astea, (H)ilbeltza ospatu da Baztanen hilaren 20tik 26ra. Hainbat liburu aurkezpen, solasaldi eta bestelako ekitaldiren artean, zapatu goizeko mahai-inguruak sortu du aparteko ikusmina. Izan ere, nobela beltzaren aitzakian, bestela ere kriminal bat nola eraikitzen den izan dute mintzagai.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA / ARGIA CC-BY-SA

Hizlari biek dute kriminalitatearekin –hala izenda badaiteke– eta literaturarekin edota kontatzeko artearekin halako lotura estua: Mikel Elorza, *Berria*-n zutabegile eta Susan editore ez ezik, “kriminalen defentsan” ere aritzen da, abokatu baita ofizioz; eta Edurne Elizondo kazetaria da, besteak beste Itoizko urtegiaren defentsan aritu ziren “kriminalak” –hala izendatua, *Bertsio Ofiziala* delakoa dixit– elkarrizketatu zituen eta kasua gertutik jarraitutakoa da, baita AHT-aren harira Yolanda Barcina zipriztindu zuen tarta jaurtizaileen auzia ere, eta, azken hamarkadan bereziki, Baztango Aroztegiaren jarraipena egiten ari da. Solasaldiaren gidari Isabel Jaurena kazetaria aritu da.

Hitz eta pitz aritzeko gaia, hari mutur ugari dun auzi zabala, galdera hauxe bera: nola eraikitzen da kriminal bat?

(H)ilbeltzako antolatzaileek eman diote testuingurua mahai-inguruaren funtzioari, Elorzari zuzenduta: “Mikel, nobela beltzen zalea ez ezik, abokatu ere bazara, eta ondo ezagutuko dituzu kriminalak. Bada, gu ere, Baztanen, ikasten ari gara kriminal izatea zer den eta zer ez. Baina gehiago ikasi nahi dugu, eta abokatu bat, horretarako, bidelagun aporposa izan daiteke”.

Hala, lehen enkargua Elorzari jaurti diote, ez nolana hiko: defini zer den kriminal bat. Bizi samar erantzun du, etengabe elkar nahasita eta gutxitan esplizitatuta uanean-uean literaturaz edo abokatutzaz ari zen: “Cesare Lombroso kriminologoak ezaugarritu eta definitu egin zituen kriminalak, hala nola belarri luzeak izaten zituztela eta... Argi dagoena da kriminala egin egiten dela. Faktoreak era guztietakoak izan daitezke, baina inportanteak dira familia eta egoera sozioekonomikoa”.

Zirtolari jarraitu du solasean, eta bi multzotan bereizi ditu kriminalak: kriminal galtzaileak, hau da, zigortuta eta kartzelan amaitzen dutenak; eta irabazleak. “Azken horiek Davosen bildu dira orain gutxi”, esan du aipamena eginda munduko aberatsetan aberatsenak Suitzako Davos hirian elkartu direla kongresu batean, eta Trumpen politika ekonomikoei egin dietela amen. Honela finitu du Elorzak: “Horien kontra egiteko bi aukera daude: desobedientzia ekintza txiki edo handi batzuk egitea, gogor zigortzen direnak; edo literatura egitea, fikziotik edo ez, horien aurka egiteko”.

HEDABIDEAK ERAIKITZEN DUTE KRIMINALA

Hedabideetan literatura gutxi egiten bada ere, kriminalak eraikitzen jende abil ugari dago zenbait erredakziotan. Kriminalizazioa gizartetik jasotzen da, eta kriminalizatzen hasten da komisarietan, Elorzak abokatu gisa bizi izan duenetik esana. Baina eraiki, eraikitzen da komunikabideetan. Argi esan du Elizondo kazetariak: “Botere-harremantetan bizi gara gizarte honetan, eta horrek baldintzatzen du hedabideek nola tratatuko zaituzten”.

Aurrez Elorzak egin duen kriminal irabazle/galtzaile katalogazioari egin dio erreferentzia Elizondok, eta adibide bat ipini du arreta piztu ziona, Nafarroako Legebiltzarrera ate-irekien egun batean eginiko bisitan. Halakoxe leku instituzionaletan ohi den moduan, agintari ohien koadroak dauden gela bat bada parlamentuan. Han topatu zuen Javier Otano presidente ohiarena. PSNko alderdikideari, presidente zela, Suitzako kontu korronte bat atzeman zioten eta dimititu egin zuen 1996an. Auzia preskribitu egin zuten epaileek gerora. Baina ate-irekiera saio horietan ez zuten eroskeria kasuari buruz aipamenik egin,



Ezkerretik eskuinera: Isabel Jaurena mahai inguruaren gidaria, Edurne Elizondo eta Mikel Elorza.

Elizondok oroitu duenez: “Segun eta nor zaren eta zein krimen egin dituzun, erraz asko ahazten zaituzte”.

Diego Yllanesen kasua ere inpunitate horren gisako adibidetzat ipini du Elizondok: “ahaztua izateko” eskubidea aldarrikatu zuen Yllanesek, 2020an espetxetik irten eta berehala. Espainiako Auzitegi Nazionalak, ordea, ez zion eskaera onartu.

“Aldiz, akusatua kolektibo zapaldu batekoa bada, erraz asko ematen da horren berri; eta, era berean, biktima bada kolektibo zapaldu batekoa, berbiktimizatu egiten da”, adierazi du Elizondok. Zapaldutako kolektiboko kideak bihurtzen dira, finean, kolektiboaren ordezkari. Esaterako, Elizondok gogora ekarri du Iruñeko alkate ohi Enrique Mayak egindako kanpaina bat, zeinak adin txikiko etorkinak seinatu zituen “segurtasun faltaren” errudun egiteko.

Hedabideek eraikitzen dute kriminala, hein handi batean, hainbat iturri %100ean fidagarritzat jotzen dituztelako. Horiek dira udal baten ahotsak edota Poliziarenak; kuestionatu behar direla adierazi du Elizondok. Besteak beste, agerikoa izan zelako Iruñeko senegaldar Elhdaji Ndiaye-ren kasua: “hil egin zen” batzuen arabera, baina bizilagunen eta lekukoen testigantzek bestelako detailak eman zituzten.

Elizondoren azken adierazpen horri ipini dio puntua Elorzak: “*Bertsio ofiziala*, bertsoa bezala, amaieratik eraikia da. Hau da, erabakitzen dute zu zarela

kriminala, eta bilatuko dute modua demostratzeko hori hala izan dela”. Gauzak ez dira berri: errelato bat eraikitzen da eta epaile zenbaitzuk erosi egiten dute diskurtsoa. Batzuetan, Elizondoren esanetan, badago indarra bertsio ofiziala iraultzeko –Altsasuko gazteen auzian, esaterako–, baina beste askotan ez. Gero bada hor beste adar bat: hedabide batzuek lau zutabera epaitu dezakete pertsona multzo jakin bat, baina absolutuziorik balego, gero, baliteke ezer ez argitaratzea.

ETA ORAIN ARTEKOAK ZER LOTURA DU LITERATURAREKIN?

Kazetaritza tresna bat den gisan gizartean eragiteko, onerako edo txarrerako, kriminal bat edo ustezko kriminal bat kokatzen duen leku eta formaren arabera, literaturak asko du hortik. Nolako kontakizuna, halako kriminala. Literatura ona –kazetaritzari lotu ahal zaizkion hitzak dira–, Elorzaren ustetan, krimen bat kontatzen hasi eta gizartea bera nola dagoen kontatzen duena da.

Zineman dezente gehiago landu da kriminalaren figura, bai behintzat literaturarekin alderatuta. Zer esanik ez epai-eketak oinarri dituztenak. “Abokatuak apenas ageri gara literaturan; aspergarriak gara”, esan du umorez Elorzak. Ikerlari edo detektibeak, aldiz, bai; baina bere ustetan pisu gehiago dute gizarte makur eta konkretu batzuek. “Kriminala *irrelevantea* izaten da askotan; testuinguru batek eramana da krimena

egitera”. Edo emakume batek bultzatua: “Nire inpresioa da emakumeak normalean ez direla kriminalak, baizik eta dira oso gaiztoak, egon daitezke xaxatzen eta abar, baina krimena bere eskuekin egiten duena gizona da, gizon gizajoa”.

Krimenak kontatzeko maneran, mundu mailan, aldaketak daudela azpimarratu du Elorzak. “Niri nobela beltza gustatzen zait, beltz matea; baina orain beltz brillantea ari gara ikusten, odol zipriztinekin, ikus-entzunezko formatik gertu dagoena”. *Basque noir* deitu dio horri. Izan ere, Euskal Herriko hiriburuetan kokaturiko nobela beltzak, erdaretan idatziak ugari, ari dira hedatzen bereziki Ipar Euskal Herrian. “Baina testuinguru politikorik gabeak”, eta hori sumatzen du faltan Elorzak. Hego Amerikako nobela beltza, esaterako, egoera soziopolitikoari oso lotuta dagoela dio, baita Afrikakoa ere, gutxiago iristen bada ere. Elorzak nabarmendu duen formula egoera sozioekonomiko jakin batean trama beltz bat txertatzean datza. Eta hori Euskal Herrian ez dela gehiegi egin dio: “Borroka eta gatazka armatuak baldintzatu dute hori. ETA oso presente dago literaturan, baina egon ez dena da konflikto zehatzagoekin egindako nobela beltza. Badago, baina gutxi”.

Ari zaio horri buelta ematen, ordea. Halaxe nabarmendu du Elorzak. Halako mahai-ingurua antolatu eta jendearen horrelako erantzun bat jasotzea ez baita edonolokoa. Argi dago Elizondo ez dela soilik Dolores Redondo. ●



Hitz gezidunak

ARRAIN MOTA HARRITUTA		ILARGI RUTENIOAREN IKURRA	ADI, ERNE			HARROIN, ZUTOIN INUDE	TIPULA SORTA PERTSONAIAREN ABIZENA	BIZKAIKO HERRIA DOHANIK, HUTSEAN	
BIZIKI HASERRETU HAMAIKA ERROMATARRA						BARAU PILOTAN JOKATZEKO TRESNA			
		ERBIOAREN IKURRA AHULTASUN		MUSIKA ESTILO MALTZUR	ABEREEN BAZKA ESTATU BATUETAKO ESTATUA				
HARBIDEA ALABAREN SENAR						UNEKO EGUNEAN EZKUTAKETAN			
			APALIK IZATEKO ERA				UGARITASUN ATZIKIA ARERIOA		
KALE ITSU	UTIKAN! PERTSONAIAREN IZENA			MASKARA-DEETAKO PERTSONAIA LOREA					NAFARROAKO
						LAZTAN, MAITE IRUZUR, ENGAINU			
NEODIMIOAREN IKURRA EDARI SENDAGARRI		NAFARROAKO HERRIA ZERGA EZAGUNA					MUSIKA ESTILOA DATU BASEA		
			LEGOA KRIPTONAREN IKURRA					FLUORRAREN IKURRA POPA P BARIK	
EDERTO PREZATZERA BEHARTU				ELEMENTU KIMIKOA AZKEN LETRA					
						SUITZAKO HIRIA			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

6	8			4			3
				9		6	4
7		3	1	2	9	5	
			8	6			
	3		4	9	7		6
	6	7	2	5		4	1
		1		4	8		9
			7			8	4
4	2			3			1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Zurezko mailu handia.
2. Buruko ileen multzo.
3. Tren bateko orga.
4. Erabat lasterka.
5. Asiako herritar.

EBAZPENAK

4	2	2	6	5	3	3	8	8	2
3	9	6	7	2	1	8	4	5	
5	7	1	6	4	8	3	6	2	
8	6	7	2	2	5	3	4	1	9
1	3	4	9	7	5	8	6		
9	5	4	8	1	6	2	3	7	
7	4	3	1	6	2	9	5	8	
2	1	5	3	8	9	7	6	4	
6	8	9	5	7	4	1	2	3	

5X5:

R	V	A	B	I	Z	V	R	V	Z	E	R	P
V	O	I	D	V	R	K	R	E	D	E		
F	V	O	V	K	O	L	V	B	E			
A	S	K	U	Z	I	T	A	R	V	D	N	
N	J	U	K	O	L	U	Z	E	L	E	K	
	R	E	T	E	K	V	K	I	K	I	U	
I	T	I	K	I	V	L	K	I	H	I	S	
U	R	V	G	V	A	D	V	T	Z	G	V	
U	S	J	N	P	R							
R	U	R	B	V								
V	V	M	Z	V	H							
M	Z	H										



Muturrekoa, muturreraino eramanda

UXUE GUTIERREZ LORENZO TXALO PRODUKZIOAK

Arizona eta Mexiko banatzen dituen muga zaintzera abiatu da Idahotik Margaret (Aitziber Garmendia) eta George (Jon Plazaola) bikotea. *Minuteman* proiektuarekin bat eginda, Arizonako muga idorrera heldu, eta bertan kokatu dute zaintza txokoa. Egiteko argia dute: Mexikotik AEBra igaro nahi duten legez kanpoko etorkinen fluxua kontrolatzea.

Obraren abiapuntu den *Minuteman* proiektua 2005eko udaberrian Jim Gilchrist aktibista estatubatuarra sortu zuen. Gezurra dirudien arren, benetako proiektua izan zen *Minuteman*. Juan Carlos Ruiz gidolariak sortu zuen *Arizona* 2008an, eta berriki estreinatu dute euskarazko bertsioa Barakaldon. Euskarazko proposamena Esteban Roelek zuzendu du, Kepa Errastiren laguntzaz. Errastik izan du, hain justu, testua euskarara ekartzeko ardura.

Berrizko Kultur Etxeko saiorako sarrrera guztiak agortu dituzte. Eserleku falta medio, teknikarien txokotik ikusi

du antzezlan, eta Kepa Errastirekin partekatu ahal izan ditut emanaldiaren aurretik zein ondorengo zenbait hausnarketa eta inpresio. Errastik ondo baino hobeto ezagutzen ditu Garmendia eta Plazaola, eta emanaldia hasi aurretik aurreratu dit obra bi aktoreek hain berezko duten umore absurdoz janzten ahalegindu direla.

Patriotismo zoroaren adierazle dira *Arizona*-ko protagonistak, baina oso modu ezberdinean bizi dute esleitu zaien eginkizuna. Margaretin inozentziak talka egiten du Georgen tonu autoritarioarekin. Margaretrek musikal bat egin nahiko luke; Georgek, ordea, riflea eskuan sutsuki defendatzen du *Minuteman* proiektuaren funtsa: "Gure aberria defendatzera etorri gara. Bizilagunak kontrolatzera eta mugen inguruan gogoeta egitera".

Umore absurdoz josita dago emanaldia eta hasieratik entzun dira barre algarak antzokian. Gaia, ordea, sakona, zoroa eta erreala da. Georgek gauzen ordena defendatzen du, eta mexikarrekiko

ARIZONA

AKTOREAK: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.

NOIZ: urtarrilaren 26an.

NON: Berrizko Kultur Etxean.

areriotasuna argi dauka. Margaretrek, ordea, galdera ugari ditu Georgetzat: Zertara etorri gara hona, George? Norengandik defendatu behar dugu aberria? Zergatik gurutzatu nahi dute hegoaldeko bizilagunek?

Antzezlanak aurrera egin ahala, zailtzen eta erantzun autoritarioen segidak agerian uzten du Margaretin eta Georgen erlazioa sustengatzen duen botere harremana. Antzezlanak apurka galtzen du hasierako tonu umoretsua, eta geroz eta bortitzagoak dira Georgen jarrera eta elkarrizketen edukia. Erregistro aldaketa nabaria egiten dute Plazaolak eta Garmendiak, gaiari dagokion gordintasuna erantsita.

Musikal absurdoena drama sakon bilakatu da. Antzerki bukaeran txalo zaparrada jaso dute aktoreek, baina hasierako algararik ez da entzun. Muturreko egoera bat landu dute, muturreko pertsonaiak baliatuta eta, gehiegizko *spoilerrik* egiteko asmorik gabe, muturrekoa da egoerari pertsonaiek topatu dioten irtenbidea. ●



LIBURUA

Ama(ma)ren artilezko jertsea



EREIN

PUNTOBOBO

ITXASO MARTIN ZAPIRAIN

EREIN, 2024

AMAIA ALVAREZ URÍA

zenburuak eta azaleko irudiak (*Puntobobo*, artile-mataza eta trapuzko panpina) osasun mentala, puntua egitea eta haurtzaroa iradokiko dizkigute, baina adabaki gehiago harilkatuko dira liburua zabaltzean.

Puntobobo "puntua eratik" egiten den puntua da, sinpleena, hasieran ikasten dena, beti berdina delako. Bigarren datorrena "puntua atzetik" da eta bi puntu horien artean, buelta kopuruarekin batera, gero eta konplexuago bihurtzen da jostintza lana. Gure jendartearen metafora izan daiteke, normaltasuna eta hortik at dagoena nola kokatzen diren, nola hurbiltzen edo urruntzen dituen pertsonak: liburu honetako gai nagusia.

A larriz idatzitako Ama da Itxaso Martinen liburuko bigarren istorioan ezagutuko dugun lehen pertsonaia, eta

ez da detaile xumea. Izan ere, liburu honetan gurutzatzen diren bi istorioetako protagonistak ama-alabak dira. Lehen istorioan izena duen ama eta bere alaba Maddi, eta bigarren istorioan izenik gabeko letra larriko Ama eta bere alaba Ixi.

Amatasunaren inguruko gogoeta egitera gonbidatuko gaitu nobela honek, baita ama-alaben arteko harremanari buruz ere, eta oro har, familiaren ehuna zelan josi den begiratzera. Izan ere, komunikatzeko moduak ez dira errazak senidetasunean, eta ez dira beti hitzen bidezkoak izaten: isiltasunak eta kontaktuak (edo haren gabeziak) ere asko esaten dute (edo asko gorde).

Era berean, emakumeak agertzen dira erdigunean. Esperientzia femeni-noak unibertsalizatzen dira eta gizonak bigarren planoan geratzen dira. Hala

ere, ez da utopia feminista baten kontaketa, botere harreman patriarkala, klaseen arteko zapalkuntza edo herriaren kontrol soziala ere badaudelako, aita, senarra, apaiza, irakaslea edo medikua- ren bidez.

Etzeko sukaldean agertzen dira lehen istorioeko pertsonaiak elkarrekin berbetan bazkalorduan. Bigarren istorioan ordea, narratzaile orojakileak kontatuko digu beste ama-alaba batzuen arteko harremana, nagusiki etxe barruan kokatuta, haien babesleku bihurtuko dena. Etxea, bizirik egongo den hirugarren pertsonaia garrantzitsu bat izango da, urteekin eraldatzen joango dena.

Lau emakumeren istorioek osatuko dute artilez trikotatutako jertsea eta honen hariiek irakurlearen azala ziztatu eta korapiloak sortuko ditu erraietan. ●



MUSIKA

Betiereko Wagner



E. MORENO ESQUIBEL

'TRISTAN UND ISOLDE' OPERA

Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

ZUZENDARIA: Erik Nielsen.

Bilboko Operaren Abesbatza.

ZUZENDARIA: Boris Dujin.

ESZENA ZUZENDARIA: Alex Aguilera.

BAKARLARIAK: R. Nicholls, G. Hughes Jones, M. Mimika, E. Silins, C. Daza, D. Barcellona, J. Cabrero eta G. Mungia.

NOIZ: urtarrilaren 18an.

NON: Bilboko Euskalduna Jauregian.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Noizean behin eskertzen da Wagner on bat, bere dentsitatearekin eta bere harmoniarekin biloak puntapuntan jartzen dituen, baita bere dramarekin ere. Unibertso wagneriar horrek *bel canto* italiarra bezalako atsegin simple eta arina eskaintzen ez duen arren, eserlekuari itsatsita uzten gaitu giro lodi eta goibel batean murgildurik, pentsaraztea eragingo gaituena.

OLBEk horretaz guztiaz gozatzeko aukera eman zigun, agian ez nahiko genukeen mailan, baina publikoak gozatu egin zuen, hori ziur.

Tristan und Isolde opera luzea da, Wagnerren beste guztiak bezala. Ia ez du ekintzarik, eta protagonisten monologo luze-luzeak ditu, beren grina tragikoetan biltzen gaituztenak. Egia esan, opera honek egiten duen sorginkeria, eta sorginkeria handia da, musika bera da, Wagnerrek obra osoan barreiatzen duen zelula, elementu subliminal gisa jarduten duena, eta *frisson* hori eragiten diguna hautematen dugunean. Magikoa da.

Baina hau opera bat da. Erabateko ikuskizuna. Eta OLBEk eskaini zigunak ez zituen elementu guztiak. Opera honetan ekintza oso inplizitua da, baina ezkutuko ekintza hori, zuzenean azaleratzen ez dena, modu argiagoan adierazi behar zaio publikoari. Hau da, eszena-zuzendaritza egokia egon behar da, kontzertu-bertsio batean gaudela pentsa ez dezagun. Eta une batzuetan hala zirudien.

Abeslariak hieratikoak izan dira, adierazpen eta mugimendu gutxikoak. Eszenografiak ere ez zuen laguntzen: tarima bat eta proiektzio asko. Gainjarritako irudi asko, giro kuasigotikoa, adimen artifizialaren bidez sortutako irudiak... Baina nik eskertzen dut ondo muntatutako eszenatoki bat, Wagnerrek gure aurrean jartzen dituen emozio horiek guztiak eragiten dituen ekintzarekin fantaseatzen lagunduko didana.

Azter dezagun alderdi musikala. Isolderen rolean Oksana Dyka sopranoaz gozatzeko aukerarik izan ez genuen arren –gaixorik zegoen–, Rachel Nicholls britainiarrak aise, indartsu eta pertsonaia horrek izan behar

duen aura bereziarekin interpretatu zuen heroia. Gainera, ahots garbi eta segurua erakutsi zuen. Interprete *wagneriar* bikaina dela frogatu zuen. Gwyn Hughes Jonesek, berriz, Tristan motela egin zuen, baina interpretazio eraginkorra ere izan zuen, eta erraz gaintu zituen paperaren zailtasunak.

Gainerako bakarlariek ere mugimendu falta izan zuten, baina hori ezin zaie leporatu, zuzendaritza eszenikoaren arazoa baita. Bokalki asmatu zuten, ordea. Hauexek izan ziren interpretazio bereziki azpimarratzeak: Marko Mimikarena, Marke erregearen rolean, sakontasunez betea; Daniela Barcellona mezzosoprena, bikain aritu baitzen ahotsez eta, gainera, aktoretza aldetik sinesgarriena izan zen; eta Carlos Daza tenorearena, Meloten rolean, ondo tinbratua.

Zalantzarik gabe, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren interpretazioa nabarmendu behar da, Erik Nielsenen gidaritzapean; izan ere, lehenengo *Tristan akorde* famatutik izugarri gozatu genuen partituraren irakurketa fantastikoarekin, ñabarduraz betea. Oboe-bakarlarria, zoragarria. ●

Marmotak negu luzea iragarri du, eta?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Negua, AEBetan, espero baino luzeagoa izango omen da aurten. Pennsylvaniako Phil marmotak iragarri du edo, bueno, hori interpretatu dute behintzat, zulotik atera denean animaliak bere itzala ikusi duelako: ohikoa baino sei aste gehiago hotza pasatzen.

Egongo da, nola ez ba, eguraldia iragartzeko metodo honetaz mesfidatzen den norbait sail honen irakurle prestuen artean. Horientzako ikuspuntu zientifikoagoa eskaini behar eta, hor hasi naiz bila, ea nondik datorren marmoten klima iragartzeko ustezko kapazitate hori. Ez dut ezer aurkitu –harritzekoa–, baina arte garaikidean bezala hemen ere emaitza baino puskaz inportanteagoa denez *prozesua*, bidean enteratu naiz marmotak Euskal Herrira kasik atzo goizean iritsi zirela, Alpeetatik ekarrita; Pirinioetan ez daukatela ñak-ñak-ñak jango dituen zomorro handiagorik; eta horregatik, arazo ekologiko larriak sor-

ditzaketela. Problematika horren kontzientzia harturik beraz, artikulua gaira itzuli aurretik, nire posizio irmoa adierazi beharrean nago, alegia, espezie inbaditzaile honen aldean nahiago dudala autentikoa, gurea, galzorian dagoena: eguraldiaren gorabeherak tenporei begiratuta asmatzen dituen *homo sapiens* euskalduna.

Baina Phil genuen aipagai, Pennsylvaniako Phil marmota. Egia esan, usamerikan gauzak hartzen ari diren tankera kontuan hartuta, harritu eta dena egin naiz nola ez den etxean geratu, batere atera gabe, mantapean sartuta *Game of Thrones*-en kapituluak bata bestearen atzetik ikusten, eta pentsatzen “winter is coming” esaldiak oraintxe daukala zentzu betea. Galdera filosofiko sakon bat gordetzen du, hortaz, marmotak zulotik ateratzeko daukan beharrak: zergatik ez dugu etsitzen?

Albert Camusen *Sisiforen mitoa*-rekin (1942) estu-estu lotuta dago Marmota-

ren Eguna eta inguratzen duen erritua guztia. Ederki konturatu ziren horretaz Harold Ramis eta Bill Murray *The Groundhogg Day* (1993) pelikula egin zutenean, zeinak, nolako negua datorren asmatzeko ohitura probintziano bat mundu osoan ezagun egiteaz gain, zalantza existentzialen alde komikoa ikusten ere lagundu baitzigen. Zergatik hasten da egunero harriari maldan gora bultzaka Sisifo, goraino iristean berriz ere aldapan behera eroriko dela eta hutsetik hasi beharko duela jakin arren? Zergatik saiatzen da Murrayren pertsonaia goizero zerbait desberdina egiten, biharamunean, *I Got You Babe*, egun berean esnatuko dela jakin arren? Funtsean: zergatik saiatu berriz, porrota beste aukerarik eskaintzen ez digun gauzen ordenaren kontra?

Badira ezkortasun aktiboak, baina Phil marmotarena, nagusitzen ari den etsipen giro orokorra bezala, ezkorkeria paralizatzailea da: zulotik atera den aldi gehienetan –107 aldiz– “iragarri” du negua espero baino luzeagoa izango dela; hemeretzi aldiz bakarrik iruditu zaio udaberria aurreratuko zela. Sineskeriak dioena datu objektiboekin kontrastatuz gero, ordea, Weather Predictor Extraordinaire webguneak egin duen bezala, Pennsylvaniako karraskariaren iragarpenak hamarretik seitan huts egin du.

Egoerarik ilunenean ere, kontuz erabateko desahintzen profetei jarraitu gabe. Nik behintzat, Bill Murrayk bezala, dena ikusita daukanaren espresioa jantzita eta Sisifok maldaren amaieran Camusen arabera sentitzen zuen une zoriontsu txiki horri uko egin gabe hartuko dut Donald Trumpen administraziopean ardaillaka abiatu den faxismo globalaren aldi berri hau. Marmotak iragarritakoa gorabehera, negua bukatuko denean bukatuko da, ez lehenago, baina ezta geroago ere. ●





Jertsea **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkartea da Mbolo.

BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

